

## Arruazun euri gehien?

Sarean dabilen datuaren egiazkotasunaz galdetu dugu / 2-3



**Hezkuntzan Hezten programaren bidez ikasleak hondakinen inguruan sentsibilizatu ditu Mank-ek / 5**

**Beriain mendirako bidean aparkalekua egiteko dirulaguntza lortu du Unanuko Kontzejuak / 11**

**Gobernuak Kirol Merituaren Urrezko Saria eman dio Ioseba Fernandez irristalariari / 16**

**Sakandarrak bikain Behobia-Donostian: Iratxe Lapuente irristalari ziordiarra, podiumean / 18-19**

**Victoria A. Musetti antzerkigile olaztiarrak lan berriaren aurrestreinaldia egingen du / 23**

ZUTABEAK



JOSUNE AZPIROZ IMAZ / 4



ERRAFAILAK SAKANAN / 4



ALTSASUKO UDAL LIBURUTEGIA / 22

ZURE KOMERTZIOA

*Gabonetako gehigarrian*

PUBLIZITATEA JARTZEKO AZKEN EGUNA ABENDUAK 1

661 52 32 45 | publi@guaixe.eus

guaixe

JOAN DEN URTEKOA







Zalantza bat argitzeko Peio Oria Iriarterengana, AEMETeko Nafarroako ordezkariarengana jo dugu. UTZITAKOA

# "Guk gezurtatzea da egin dezakegun bakarra"

**PEIO ORIA IRIARTE** AEMETEKO NAFARROAKO ORDEZKARIA

Arruazu estatuko toki euritsuena den jakiteko jo dugu harengana, baita meteorologia datu bilketen inguruko argibideak eskatzeko ere

**Alfredo Alvaro Igoa** SAKANA

Mende hasierako bi albisteren titularrak hasteko: *Arruazu eta Artikutza, biak Nafarroan, dira euri gehien egiten duten Espainiako herriak* (ABC, 2001-07-30) eta *Arruazu, euri gehien egiten duen tokia: Euskal herriak euri guztiak biltzen ditu* (El Periodico, 2007-12-18). Halako beste hainbat opa daitezke Interneten bilaketa eginez gero. Albiste horien arabera Arruazu da estatuan urteko batz besteko prezipitazio handiena duen herria: 2.800 litro metro koadroko urtean.

**Egia da Arruazu dela estatuan euri gehien egiten duen tokia?**

Ez da egia. Egia esan, ez dakigu nondik atera zen mito hori duela 20 urte. Gure agentziako komunikabide artxiboetan begiratu dugu eta ez dugu ezer aurkitu. Egia da datu horrek hainbat medioetara salto egin zuela. Baina guk gezurtatzea da egin dezakegun bakarra. Sakanako batez besteko urteko euri metatzea 1.200 eta 1.400 litro metro karratu artean dago. Altuarekin beti hazkundera dago eta, horregatik, Sakanako leku altuenetan Lizarragan, esaterako, segur aski pixka bat euri gehiago botatzen duela, 1500 litro inguru. Estatuko toki gehienekin alderatuta asko izan arren, segur aski badaudela 3.000 litro metro karratu baino gehiago jasotzen diren lekuak.

**AEMETen ez duzue jaso, eta Arruazun ez dago meteorologia estazioirik. Nondik atera zuten datua?**

Ez dakigu, eta gezurtatu besterik ezin dezakegu egin.

**Sakanan 1.200 eta 1.400 metro artean urtean jasotzen badira, bikoitza da 2800.**

Alde handia da, bai; euri pila da. **Arratzua izeneko herriak badaude, bata Gasteiz ondoan, bestea Gernika inguruan. Herriaren izenaz nahastu ziren?**

Ez dut uste. Guk egunero egiten ditugu gure iragarpenak herri bakoitzerako. Gure meteorologia estazioen sarea dugu. Sakanan bakarrik bi ditugu, Euskal Autonomia Erkidegoan gehiago

daude. Baina ez Arruazun ezta aipatu dituzun herrietan ere ez dugu estazioirik.

**Sakanan euri gehien jasotzen duen meteorologia estazioa zein da?**

Sakanan, ofizialki, bakarrik hiru meteorologia estazio daude. Altsasuko estazioan 1.300 litro metro karratuko jasotzen dira urtean. Irurtzunen eta Etxarri Aranatzan daude, azken hori Nafarroako Gobernuarena da. Bi meteorologia estazio horietan gutxi gorabehera 1.200 litro metro karratuko jasotzen dira. Jakina, hirurak ibarraren hondoan daude. Baina, noski, badakigu mendien erroan dauden herrietan gehiago botatzen duela. Adibidez, Ergoienako herrietan, edota mendi pasaguneetan. Lizarragako gainean edo Lizarrustin kantitate hori segur aski 1.500 litrorara ailegatzeko delako. Puntualki gehiago Berriainen edo Aralarren.

**Iruñeritik Sakanara sartzean beti sumatzen dugu eguraldian aldaketa. Baina Sakanan bertan, ekialdetik mendebaldera ere, esaterako, Irurtzundik Altsasura ere bada aldaketarik.**

Gauza bera gertatzen da Iruñerrian. Irurtzundik sartuta Artederreta edo Tebasera diferentzia nahiko esanguratsua dago. Jakina, aldea handiagoa da Iruñetik ateratzerakoan. Iruñeritik Aralarra begiratu eta egun askotan hor hodeiak ikusten dituzu, batzuetan prezipitazioak ere bai. Eta, jakina, euriari dagokionez desberdin-

**"SAKANAKO BATEZ BESTEKO URTEKO EURI METATZEA 1.200 ETA 1.400 LITRO M<sup>2</sup> ARTEAN DAGO"**

**"ERLIEBEAK ETA MENDIEN TOPOGRAFIK DEFINITZEN DUTE EURI GEHIAGO NON BOTATZEN DUEN"**



www.ventanasegoki.com

Arkinoturri Industrialdea • Olazti

**GIDARIDUN LEHIO BERRIAK**  
Mugarik gabeko estetika modernoa

Erakusketa: Olite kalea 16 • Iruñea



tasun batzuk daude Sakanan. Zuek mendi altuz inguratuta bizi zarete, Urbasa eta Andia alde batetik, Aralar bestetik. Mendiak dauden tokietan erliebearekin interakzio efektuak agertzen dira. Adibidez, zuenean oso ohikoa da hego haizeak jo eta tenperaturak bat-batean gora egitea, goranzko saltoak egiten. Hori bera beste leku batzuetan gertatzen da: Piriñoetako hainbat ibarretan, Baztanen. Euriarekin antzekoa; erliebeak eta mendien topografiak definitzen dute euri gehiago non botatzen duen.

### Nafarroan eta Euskal Autonomia Erkidegoan zein dira euri gehien jasotzen duten tokiak?

Lehenik eta behin gauza bat aipatu behar da: urteen arabera leku batzuetan euri gehiago botatzen du. Guk, normalean, 30 urteetako serie klimatikoa kontuan hartzen dugu. Horrek zer esan nahi du? 30 urte segidan tenperatura, eta kasu honetan euriaren pilatzea, neurtu behar dugu egunero leku berean, estazio batean eta urtez urte estatistika bat eraiki. Hau da, pilatutako euria egunero gehitzen da eta hilabetero. Ondoren, epe luzerako batz besteko balioa kalkulatu da. Hori kontuan hartuta, Nafarroan ipar mendebaldean dagoen eskualdea da, Goizueta, Lesaka, Artikutza, hor dago lekurik hezeena, Nafarroan euri gehien botatzen duen lekuak dira. Eta Euskal Autonomia Erkidegoan gauza bera. Artikutza Gipuzkoa eta Nafarroa arteko mugan dago. Urtean pilatutako euri kantitatea urteko, gutxi gorabehera, 2.500 litro metro karratuko da.

### Sakanakoaren bikoitza?

Bai. Zergatik? Ipar-mendebaldek heldu diren fronte eta Atlantikoko ekaitzek hor, lehenengo mendilerroetan, euria uzten dutelako.

### Meteorologia estazioetako datuak zein maiztasunekin jasotzen dituzue?

Nafarroan eskuzko 90 estazio ditugu, automatikoak ere badaude. Eskuzko estazioetan beti kolaboratzaile bat dago. Duela hamarkada batzuk herriko apaiza edo eskolako maisua izaten zen. Orain profila pixka bat aldatu da eta boluntarioak dira. Horrek konpromiso handia eskatzen du. Egundero, goizean, beti ordu berean, datuak hartzera joan behar da. Automatizatutako

20 bat estazio daude Nafarroan, datuak hamar minutuero transmititzen dituzte. Datuak Nafarroako Gobernuaren edo AEMET-en webgunean kontsulta daitezke. Nafarroako Gobernuak, ur konfederakundeek eta beste erakunde batzuek haien sareak dituzte. Azkenean, dena biltzen baldin bada, Nafarroan estazio meteorologikoan dentsitatea nahiko nabarmena da.

### Pentsatzen dut erakundeak elkarlanean ariko zaretela.

Nafarroako Gobernuko meteorologia zerbitzua, ur konfederazioak eta AEMET oso koordinatuta egiten dugu lan elkarrekin. Adibidez, meteorologia estazio berri bat instalatzerakoan Nafarroako Gobernuaren dagokion departamentuarekin hitz egiten dugu, sareak osatzen saiatzeko, leku berean bi estazio ez instalatzeko. Eta gauza bera esaten ahal da Ebroko Ur Konfederazioaz edo Intiaz (foru administrazioaren lehen sektoreaz arduratzen den enpresa publikoa). Bai, oso maiz hitz egiten dugu. Nik uste dut gure zerbitzurako eta zerbitzu publiko osorako gauza ona dela.


### Zer erabilera praktiko dute jasotako datuek?

Esan dudan moduan, eskuzko estazioen kasuetan boluntario batek joan behar du egunero. Zer-nolako datuak hartzen ditu? Tenperaturenak: aurreko eguneko tenperatura maximoa, goiz horretako tenperatura minimoa eta 24 orduan pilatutako euria. Horrela egunez egun eta urtez urte serie klimatikoak eraikitzen dira, eta toki jakin bateko klima ezaugarriak ezaugaritzen dira prozesu horren ondorioz. Azken finean, hori oso inportantea da epe luzean, batez ere gaur egun klima aldaketaren joera kontuan hartuta. Oso-oso inportantea da gure klima ezaugarriak, tokiko aldaketak ikusteko. Nik uste dut benetako altxorra dela halako datuak, hain epe luzeok izatea, gordetzea eta aztertzea. **Gobernuek datu horiek kontuan hartzen dituzte politika publikoak garatzerakoan?**

## "LUZERAKO JOERAK IDENTIFIKATZEKO AHALIK ETA KLIMA SERIE LUZEENAK BEHAR DIRA"


## Batez besteko prezipitazioa urtean (l/m2)

### Irurtzun



\*\*2012 eta 2013 urteetan datuak falta dira

### Altsasu



Bai, noski. Adibidez, Nafarroako leku gehienetan aurten, udaberrian, lehortearen sufritu dugu. Lehortearen zaintzeko eta jarraipena egiteko behar dira halako datuak, oso inportanteak dira. Ez bakarrik epe luzeari begira, baizik denboraldi jakin baterako ere. Esaterako, laborantzaren ekoizpena ikusteko. Edota uholde kasuan halako datuak denbora errealean izatea oso inportantea da, jakiteko zehazki euri gehien non ari den botatzen, eta uholdeak, nolabait esateko, aurreikusteko, edo iragarpen bat egiten saiatzeko.

**Klima aldaketa denen ahotan dagoen honetan ere datu erabilgarriak izango dira joerak ikusteko.**

Oso. Epe luzearako joerak identifikatzeko ahalik eta klima serie

luzeenak behar dituzu. Nafarroan jada askok dituzte 50 urte, gehienak esango nuke. Hor, datuetan, ikusten dira tenperaturen goranzko joerak argi eta garbi, batez ere azken bi hamarkadetan tenperatura igoera edo hazkundea hori nola azaleratu den ikusten da.

**Datuen garaian bizi gara eta meteorologiarekin zerikusia duten datuak batean eta bestean agertzen dira. Fidagarriak direla jakiteko, zeri erreparatu beharko genioke?**

## "JASOTAKO DATUETAN IKUSTEN DIRA TENPERATUREN GORANZKO JOERAK ARGI ETA GARBI"

Komunikazio atal bat dugu estatuko meteorologia agentzian, eta egunero informazioa eta datu pila ateratzen dute. Printzipioz, hori dena argitaratu baino lehen baieztatzen egiten da, edo baieztatzen behar da datu fidagarria dela eta ongi neurtuta dagoela. Horretarako, meteorologia baieztapenerako plana dugu, eta oso modu zehatzean segitzen ditugu meteorologia estazioak. Printzipioz hori guztia fidagarria da. Baina, zuk esanduz moduan, makrodatuen garaian bizi gara orain eta geuzurrezko informazioa eta datuak daude Interneten. Jakina, horrekin kontuz ibili behar da. Beraz, gure gomendioa da iturri ofizialak erabiltzen dituzten hedabideak kontsultatzea.





ASTEKOA

JOSUNE AZPIROZ IMAZ

## Adin txikikoak bai, txikiak eskubideetan ez!

64 urte pasa dira azaroaren 20an Haurren Eskubideen Nazioarteko Eguna ezarri zela, Nazio Batuek bideratuta, arraza, hizkuntza, erlijioa, sexua, gaitasuna, alde batera utzi eta haurtzaroa babesteko eta beraien garapen integrala bermatzeko helburuarekin.

Guztiak ezagutzen ditugu eskubideetako batzuk eta egunero urratu egiten direla ere bai. Hain zuzen ere, guda baten erdian jaio eta haztea, geroz eta ohikoa bihurtzen ari da. Hezkuntzarako, jolaserako, osasunerako eskubidea... Jartzen al ditugu haurren eskubideak gure bizitzan eta gizartearen erdigunean?

Helduen osasun mentala haurtzaroan definitzen dela kontziente izango bagina, ziur nago, hauek babesteari arreta gehiago jarriko geniola. Baina... Nondik hasi?

Bakoitza bere eremu pertsonaletik, haur begirada duten betaurrekoak jarri eta... hasteko, nahikoa izan daiteke.

Jarraitzeko, Zavalloni, italiarraren "HAURREN ESKUBIDE NATURALAK" ezagutzuz. Naturalak? Bai, naturarekin lotuta eta

## JARTZEN AL DITUGU HAURREN ESKUBIDEAK GURE BIZITZEN ETA GIZARTEAREN ERDIGUNEAN?

modu naturalean ere haurtzaroari lotutakoak. Batzuk:

- Zikintzeko eskubidea: arearekin, lokatzarekin, urarekin jolastu...ze gozatua!
- Eskuak erabiltzeko eskubidea: mundua ezagutzeko eskuak erabili...eta zikindu!

- Haziera ona: elikagai osasungarriak hartu, ur freskoa edan eta aire garbia arnastu.

- Basatia izateko eskubidea: basoan etxola bat eraiki, zuhaitzetara igo, errekan bainatu... Gogoratzen?

- Siltasunerako eskubidea: haizea, txoriak, basoaren marmarra, lasaitasuna...

Natura gara, geroz eta urrunago gauden arren.

Proposamena: aurreko eskubideren bat aukeratu, eta praktikan jarri.

## ZUZENKETA

Aurreko zenbakiko 11. orrian Arbizuko eskola zaharreko lanen berri eman genuen. Eraikina berritzeko lanak 370.000 euroko aurrekontua du, argitaratutakoa baino 40.000 euro gehiago. Bestetik, udalak Nafarroako Gobernuari eskatutako hiru lanak erreserban daude: Fernando Urkia kalea berritzea, udaletxea berritzea eta kirodegiko klimatizatzailea berritzea.

## HARA ZER DIEN

### Denon bizitzak erdigunean jartzeko, azaroaren 30ean grebara!

#### ERRAFAILAK SAKANAN

2023ko martxoaren 8an argitaratu zuen Euskal Herriko Mugimendu Feministak azaroaren 30ean Euskal Herriko lehen Greba Feminista Orokorra. Geroztik, feministok buru belarri aritu gara grebaren prestaketarekin eta honek eskatzen dituen aurretiko lan guztiekin: saretzeak, asanbladak, greba batzordeak... Sakanan, eskualdeko Asanblada Feministan hartu dugu parte eta gure herrietako greba batzorde zein batzarretan dihardugu lanean. Baina, zergatik greba orokorra? Zergatik feminista? Zertarako? Urteak daramatza Euskal Herriko Mugimendu feministak

zaintzak erdigunean jartzen eta lehenetsun politikotzat markatzen. Bizi dugun krisi anizkoitzaren testuinguruan, zaintzaren krisia larria da. Zaintza lanak ezinbestekoak dira bizitzeko, eta pertsona guztiontzako bizimodu duina eraikitzeko ezinbestekoak dira. Gainera, komunitatean landu eta garatu behar ditugu eta ardura kolektiboa da, denona beraz. Baina sistema kapitalista zisheteropatriarkal arrazista eta kolonialak arautzen du nork merezi duen zaintza eta nori dagokion zaintzea. Eta bide horretan, emakumeongan\* erortzen dira zaintza lanak, ikusezin bihurtzen dira eta modu prekarioan merkantilizatzen dira.

Gazte feministok argi dugu ez dugula sistema hau erreproduzitu eta zainduko. Horregatik, azaroaren 30ean zaintzaren eskubide kolektiboaren alde aterako gara kalera, Zaintza Sistema Publiko komunitarioaren alde, zaintza lanak aitortzeko, zaintza lanen esplotazio, feminizazio eta arrazializazioaren aurka. Zaintza ardurak kolektibizatzeke eta birbanatzeko aldarria egiten dugu, gure bizitzan aurka egiten duen sistemaren aurrean antolatzea eta borrokatzea erabaki dugulako. Horretarako aterako gara kalera azaroaren 30ean, denon bizitzak erdigunean jartzeko.

## GUTUNA

### Utzi lan egiten mesedez

#### IÑAKI MUNDIÑANO LARRAZA

ALTSASU BHIKO ZUZENDARITZA ETA KLAUSTROAREN IZENEAN

Nerabez betetako toki batean lan egiten dugu eta gatazkak eguneroko kontua dira, bai gure institutuan, baita beste ikastetxe guztietan ere. Honekin lotuta, curriculumeko edukiak lantzeaz gain, gure egunerokoan alderdi sozioemozionalek ere toki handia hartzen dute. Inork

pentzatu du, benetan, identifikatutako gatazka baten aurrean ikastetxeko langileok ez garela ezer egiten ari? Hilabeteak daramatzagu gaia lantzen, taldeko irakasle guztiak eta klustro osoa jakinaren gainean daude eta lanean ari gara neurriak aplikatzen; eta kanpoko injerentziarik ez dagoenean, badoa.

Ikastetxeak gatazkako aldeei errespetua eta konfiantza eskatu dizkie. Tartean adin

txikiko pertsonak ditugu, guztiak babestu behar ditugu eta ingurune seguru bat eskaini, eta zarata mediatikoak, sare sozialek, kontrastatu gabeko adierazpenek eta pertsonak seinatlatzeak ez dute mesederik egiten.

Hezkuntzan ari gara, lanean ari gara, eta horretarako behar ditugu errespetua eta konfiantza, eta denbora: utzi lan egiten, mesedez.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / [gutunak@guaixe.eus](mailto:gutunak@guaixe.eus)

# guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

#### GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika  
[info@gkomunikazioa.eus](mailto:info@gkomunikazioa.eus)  
 948 564 275 (3 luzapena)  
 619 821 436  
 Ainhoa Etxeberria Pikabea  
[gk@gkomunikazioa.eus](mailto:gk@gkomunikazioa.eus)  
 618 640 056

#### Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez  
[admin@guaixe.eus](mailto:admin@guaixe.eus)

#### Zuzentzailea:

Joxe Aldasoro Jauregi

#### Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

# Mank

s a k a n a

## BAZKIDEAK



#### Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa  
[guaixe@guaixe.eus](mailto:guaixe@guaixe.eus)

#### Erredakzioa:

Maidor Betelu Ganboa  
[kirolak@guaixe.eus](mailto:kirolak@guaixe.eus)  
 eta Erkuden Ruiz Barroso  
[kultura@guaixe.eus](mailto:kultura@guaixe.eus)

#### Maketatzailea:

Irene Trecet Obeso  
[maketazioa@guaixe.eus](mailto:maketazioa@guaixe.eus)

#### Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano  
[publi@guaixe.eus](mailto:publi@guaixe.eus)

#### Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde  
[fundazioa@guaixe.eus](mailto:fundazioa@guaixe.eus)

#### ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.  
 31800 Altsasu  
 948 564 275  
 618 882 675



Gobierno de Navarra  
 Nafarroako Gobernu



Hileko koparen kita eskutan dute Iñigo Aritza ikastolako ikasle batzuk. UTZITAKOIA

## Hondakinak ikasgai bihurtu dira tarte batez

Hondakin Zerbitzuak ikasleak sentsibilizatzeko Hezkuntzan Hezten programaren bigarren edizioa despeditu berri du. Besteak beste Utzubar Ekogunea bisitatu dute, antzeztutako informazio saioak eta tailerrak izan dituzte

SAKANA  
Ikasleek hondakinak murrizteak eta berrerabiltzeak duen garrantziaz jabetzen laguntzeko helburua duen programa bukatu berri du Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuak. Helburu hori ibarreko ikasleen artean zabaltzeko dozena erdi jarduera egin ditu zerbitzuak. Antolatuta-

tako jarduera horiek guztiek 44.460 euroko aurrekontua izan dute. Haren %100a Nafarroako Hondakin Funtsak ordaindu du. Funtsaren diru iturria hondakindegira isurtzen diren hondakinengatik kobratzen den zerga da.

Alde batetik, umeendako fardel berrabilgarrien berri emateko

jardunaldia antolatu zuen Arbizuko Kattuka haur eskolan azaroaren 13an. Horrekin batera, Sakanako lau haur eskolei 1.500 fardel berrerabilgarri eskaini zaizkie. Hala, haur eskoletako arduradunek gurasoei haien seme-alabak zentroetan dauden bitartean fardel berrerabilgarriak erabiltzeko aukera emanen die-

te. Neurri horren zergatia azaldu du Olatz Garde Mazkian teknikariak: "erabilera bakarreko fardelak erabiliz gero, ume batek hiru urteetan 2,1 tona fardel hondakin sortzen ditu. Dirutan, gurasoen gastua 2.000 eurokoa da. Berrerabilgarrien kasuan, berriz, 500 euro inguru". Gaineratu duenez, "seme-alaba gehiago izanez gero, berriz erabili daitezke eta aurrezpena handiagoa da". Programaren aurkezpenaz zerbitzuko kideak, Kattukako kudeatzaileak eta hainbat urtez fardel berrerabilgarriak erabili dituen Dulantzi Lopetegi egon ziren.

### Gehiago

Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleei hileko kopak banatu zaizkie azaroaren lehenengo astean. Guztira, 160 kit erosi ditu, bakoitzean hileko kopa bat eta odol isuriak xurgatzeko oihalezko bi zapi daude. Kopa horiek tanpoiak eta konpresak ez bezala, ez du odolik xurgatzen, barruan metatzen du atera eta bota aurretik. Berrerabilgarriak dira.

Bestetik, Pantxika Lamur clownak informazio saio antzeztuak egin zituen. Haien bidez, murriztu, berrerabili eta birziklatu hirukoari buruzko informazioa eman zitzaion Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikasleei. Guztira hamahiru saio izan ziren.

Bestalde, Sakanako hainbat ikastetxeetan jostintza tailerrak egin ziren "arroparen inguruko arazoaz kontzientzia sortzeko". Bestalde, eskuz josteko eta makinan josteko lehen pausoak azaldu zitzaizkien, eta berrerabilitako oihalekin diru zorroak egin zituzten.

Aldi berean, ikastetxeetan hondakinaren inguruko informazio saioak egin ziren. Haietan hondakinaren hierarkiaren berri eman zitzaion ikasleei. Gainera, ikasleek Utzubar Ekogunea bisitatzeko aukera izan zuten. Lehen Hezkuntzako 23 gela pasa dira handik, 364 ikasle. Bertan hondakinek egiten duten bidaia ikusi zuten: konpost planta, industria hondakinaren biltegia, ontzi arinen eta errefusaren transferentzia gunea, paper prentsa, garbigunea, zabortegia eta berrerabilpen gela. "Sakanako ikasleen hondakinaren inguruko ezagutza maila izugarri handia da, eta oso positiboa da beraiek etxean egindako bereizketa zertarako balio duen ikusi ahal izatea", azaldu du Gardek. Bisitaren ondoren, ikasle guztiek botila berrerabilgarri bat jaso zuten opari.

**"OSO POSITIBOA DA IKASLEEK ETXEAN EGINDAKO BEREIZKETAK ZERTARAKO BALIO DUEN IKUSTEA"**

## Aldaketa handiak egingen dira Irurtzongo igerilekuan

Egiturazko lanak egin behar dira legedi berrira egokitzeko. Udalak lanak emateko deialdia egin du

IRURTZUN  
Gainezkabidea, arazketa sistematik, zerbitzuak... Horiek guztiak eta gehiago legedira egokitzeko, Irurtzongo Udalak igerilekuak birmoldatzeko lanak egingen ditu. Haien aurrekontua 617.663,64 eurokoa (BEZik gabe) da.

Irurtzongo Udalak jakinarazi duenez, dauden igerilekuak eraitsi egingen dira eta berriak egin. Beheko partean igerileku boro-bila eta laukia batera egon beharrean, banatutako bi egon dira. Irakaskuntza igerileku berria hegoaldean egon da eta 10 me-

tro zabal eta luze izanen da. Haren sakonera 0,30 eta 0,46 metro artekoa izanen da. Aldagelen ondoan aisialdi igerileku lauki berria egon da. Honako neurriak izanen ditu: 26,76 metro luze, 12,51 metro zabal. Haren sakonera 1,03 eta 1,75 artekoa izanen da. Goiko partean gaur egun neurri olinpikoak dituen igerilekuaren ordez tamaina txikiagoa izanen da: 40 metro luze, 20,51 metro zabal eta 1,46 eta 1,79 metro arteko sakonera duena. Hiruren instalazioak lurpean izanen dira.



**Nafarroako**  
Bertsolari Txapelketa  
2023

Finalaurrekoa  
**LESACA**  
Azaroak 19, igandea  
17:30ean, Hileria  
Kuzko Piztailekuan



Joanes Ilarregi Marzol, Eneko Lazkoz Martinez, Josu Sanjurjo Alzuri,  
Eki Mateorena Zozais, Mikel Lasarte Cia eta Beñat Astiz Isasi

Gai-jartzaileak: Alaitz Rekondo Ferrero

**JARRAI EZAZU ZUZENEAN**  
**BELEIXE IRRATIAN!**

**beleixe** 107.3 FM





Federazioko ordezkariak lagundu dioten erakundeetako kideekin batera. UTZITAKOIA

# Tokiko merkataritzan ekosistema digitala

Ibarreko elkarteak kide den Denok Bat merkataritza federazioak merkataritzari bulkada emateko tresna digitalak indartu ditu. Ibarrekoez aparte, Bera, Lesaka, Doneztebe, Baztan eta Arrotxapeako elkarteak federazioan elkarlanean ari dira

## SAKANA

Sakanako Dendarien, Ostalarien eta Zerbitzuen Elkarteak (SDOZE) kide den Denok Bat merkataritza federazioak ekosistema digitala sortu du, hiru elementu osatzen dutena. Batetik, *denokbat.eus* webgunea, federazioaren esparru digitaleko komunikazio eta presentzia instituzionalaren elementu nagusia. Bestetik, Giltzaria fidelizazio txartela. Eta, azkenik, TopTopa, online salmenta plataforma. Ekosistema digitala "tresna digitalak salmenta tradizionala osatzeko eta indartzeko diseinatuta daude, merkataritzako landa inguruneetan eta hiri inguruneetan merkataritza jarduera sendotzeko helburuarekin", azaldu zuen Natalia Rekartek. Denok Bat federazioko lehendakariordeak.

Rekartek ekosistema digitalaren aurkezpenean esan zuenez, "merkataritzaren egoera zaila da". Gaineratu zuenez, "aurreikusitakoaren arabera, Nafarroan dendak itxiko dira"; ondorioz,

urtebetean 1.700 lanpostu baino gehiago eta hiru urtean 3.600 inguru gal daitezke. "Tokiko eta hurbileko merkataritza ereduarendako kaltegarria den testuinguru hori gorabehera, Denok Batek sektorearen eguneratzearen eta modernizazioaren aldeko apustu sendoa egiten du, garai berrietara egokitu ahal izateko eta haien presentzia zaintzeko, ezinbestekoa baita herriak eta auzoak bizirik mantentzeko", nabarmendu zuen Rekartek.

Nafarroako Gobernuako Merkataritza eta Kontsumo zuzendari nagusia Pablo Ezkurra Fernandezek aurkezpenean esan zuenez, bi dira merkataritzaren arazo nagusiak: ekintzailtzarik eza, bereziki gazteen artean, eta belaunaldien arteko erreleboa. "Izan ere, funtzionatzen duten saltokiak ixten dira, ez baitute enpresa segidarik". Aldi berean, Ezkurra nabarmendu zuen eraldaketa digitalak sektorean duen garrantzia, establezimenduak lehiakorragoak izan daite-

zen, eta gobernua egiten ari den ahalegina azpimarratu zuen, arazo horiek konpontzen lagunduz eta horrelako proiektuak diruz lagundu dituzten "funtz teknologikoa" bezalako laguntzak emanez.

Nafarroako Merkataritza Ganberako Proiektuen arduradun Eva Fontecha Herasek "lankidetzaren publiko-pribatuaren garrantzia eta Merkataritza Ganberak eraldaketa digitalaren aldeko apustua egin duela proiektu eta zerbitzuekin", nabarmendu zuen.

## Kanpaina

Proiektua Nafarroako Gobernuak finantzatu du 2023ko Funtz Teknologikoaren laguntzen bidez, 87.175 euroekin. Cederna Gara-

**"TRESNA DIGITALAK OHIKO SALMENTA OSATZEKO ETA INDARTZEKO DISEINATUTA DAUDE"**

## Azarokotea, atzera ere, bueltan da

Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen Elkartearen (SDOZE) Azarokotea kanpaina bueltan da. Elkarteak kide diren establezimenduetan azaroaren 20tik 28ra erosketak egiten dituztenek beren datuekin txartel bat bete beharko dute. Establezimendu guztietan jasotako txartelak batu eta elkarteak azaroaren 29an zozketa egingen du. Hala, guztira 1.800 euroko balioa duten 70 opari txartel banatuko dituzte, haietako 65ek 20 euroko balioa izanen dute eta hamarrek 50 eurokoa. Zozketa egin ondoren, sarituekin harremanetan jarriko da. Sarituek opari txartelak abenduaren 24a baino lehen gastatu beharko dituzte.

lurrekin sinatutako lankidetzaren hitzarmen baten bidez, egindako inbertsioen BEZaren zenbatekoa finantzatu da, 18.018 euro.

Federazioaren ekosistema digitaleko berri emateko komunikazio kanpaina martxan jarri da, Gure saltokiek pilak jarri dituzte eta orain superbotere berriak dituzte leloa duena. Haren irudia Altsasuko Rebeca Alen Royo da, Gertu burdin dendakoa. Kanpainaren bidez, merkataritza tradizionalak eskaintzen dituen abantailak (arreta pertsonalizatua, herrien eta auzoen dinamizazioa) eta tresna digitalek eskaintzen dituzten aukerak ezagutaraziko dituzte, bai bezeroei, bai merkatarien establezimenduei. Kanpaina horrek Nafarroako Merkataritza Ganberaren laguntza izan du, Merkataritzako Estatu Idazkaritzak finantzatutako 2023ko Merkataritza Planaren bidez. Federazioak bere baitan 300 enpresa inguru hartzen ditu. Federazioaren helburuen artean daude merkataritza kolektiboa sustatzea eta kudeatzea eta bere barrutiko landa eta hiri merkataritza dinamizatzea, bultzatzea eta indartzea.

## Lacturalek bere 15. urteurrena ospatu du

'Eta edan bizitza' kanpaina berria aurkeztu zuen, jarrera positiboarekin bizitzera animatzen duena

## ETXEBERRI

Bere 15. urteurrena ospatzeko Lacturalek 500 pertsona baino gehiago bildu zituen Iruñean egindako ekitaldi batean. Esneki enpresak era horretan eskerrak eman nahi izan zizkien Lacturale osatzen duten pertsona guztiei: abeltzainei, esnezaleei, makilantzaleei, banantzaleei, dendei eta abarri, baita kontsumitzaileei ere. Juanma Garro abeltzain eta Lacturaleko presidentea ongi-torria eta eskerrak eman zizkien bertaratutako guztiei. Lacturaleko abeltzainek enpresaren ibilbideko mugarri berezienak kontatu zituzten.

Julian Iantzik aurkeztu ekitaldian hainbat pertsona ezagunek parte hartu zuten: Patxi Puñal eta Oier Sanjurjo futbol jokalaririk izandakoak, Javier Diaz sukaldaria, Migeltxo Saralegi 2008an Lacturaleko lehen iragarkian parte hartu zuenak... Azken horrek Lacturalek parte hartzen duen klub eta erakundeetako hainbat ordezkariaren arteko sokatira apustua zuzendu zuen.

Ignacio Ugaldek, Aneleko presidentea, lehen sektoreak egiten duen lan soziala goraipatu zuen eta, horregatik, elikagaien ekoizpen kate osoari duintasun ez ordaintzearen garrantzia azpimarratu zuen. Azkenik, Unai Hualde Nafarroako Parlamentuko presidentea lehen sektorearen garrantzia eta tokiko eta kalitatezko produktuen aldeko apustua azpimarratu ditu.

## Aldaketa

Esneki enpresaren bazkideen ezohiko batzar nagusiak enpresari lege izaera aldatzea erabaki zuten garilarren 28an. Lacturale 685 NA Eraldaketarako Nekazaritza Sozietate izatetik erantzukizun mugatuko sozietate bihurtzera pasa zen enpresa. Ordutik, Lacturale Ganderias, SL izena du.

# HERRITARREN ARRETARAKO BULEGOAK

**HITZORDURIK GABE**  
**8:00\* - 9:30**

**HITZORDUAREKIN**  
**9:30 - 14:30**



**ZUK AUKERATU**

Orain Nafarroako Gobernuaren herritarren arretarako eta erregistroko bulegoetara joan zaitezke **HITZORDUAREKIN** edo **GABE**.

\* Ogasuneko bulegoak 8:30ean irekitzen dira

Informazioa  
eta hitzordua



☎ 948 012 012

🌐 [herritarrenarreta.nafarroa.eus](http://herritarrenarreta.nafarroa.eus)

Gobierno  
de Navarra



Nafarroako  
Gobernua



AGENDA  
2030



## Errigorako 269 saski eskatu dituzte sakandarrek

Guztira 14.000tik gora eskaera egin dira. Nafarroako erdi eta hegoaldeko euskalgintzarendako 185.000 euro dira

SAKANA

Buñuelen, kutzaz betetako kamioiak atzean, Errigorako komunitateko ordezkariak aurten go Nafar hegoaldeko uzta, euskarari puzka kanpainaren balorazioa egin dute. Jakinarazi zuten, "14.000tik gora saski iritsiko dira hurrengo egunetan beste hainbeste etxetara, eta Nafarroako erdi eta hegoaldeko euskalgintzak 185.000 euroko ekarpena jasoko du". Errigorako kideek nabarmendu nahi izan dute kanpainaren hamar urteetan eremu horretako euskalgintzak bi milioi euro jaso dituela. Diru hori Ager eremuko AEK, Tuteran, Lodosa eta Vianako ikastola eta eskoletako D ereduko lerro eta Agerraldia ekimenari emanen diete atzera ere. Errigorako kideek orain arte lortutakoagatik "zorionak eta eskerrak" eman dizkio "Errigoraren parte garen, zaretan, diren orori".

Errigorak udazkeneko kanpainari hasiera eman zionetik hamargarren urteurrena ospatzeko Euskal Herrian barna egin diren hainbat ekimen txalotu ditu. Besteak beste "hainbat herritan ekimen eta ospakizun

xumeak egon dira" kanpainaren hamargarren aldia ospatzeko. Horiek guztiak "Errigoraren komunitateaz aparte, komunitate hori saretu eta hunkitzen duten balioak islatu dituzte beste behin". Hiru dira aipatutako balioak. Aurrena, zubigintza, hau da, "pertsona, lurralde eta ideia desberdinen bat egitea". Hurrena, ekintza; "hitzetan baino egiten dugunean aurkitzea sinesgarritasuna". Eta, atzena, ahalduntzea, "txikitasunetik amets handia eskuratzeko gaitasuna badugula ikustea".

### Sakanako eskaerak

Sakanan 269 saski

**Herria Kopurua**

- **Irurtzun** 44.
- **Irañeta** 11.
- **Uharte Arakil** 14.
- **Arbizu** 15.
- **Etxarri Aranatz** 78.
- **Altsasu** 107.

### DUELA 25 URTE...



### 'Sarabe' film laburra

Bea De la Vega altsasuarra *Sarabe* film laburra filmatzen hasi zen azaroaren 18an. Erdi Aroan kokatutako istorioa iruditan jasotzen ari zen, orduko bandoen arteko borrokak eta liskarrak. Istorioa kokatutako garaia, filmaketan parte hartzen zuten gizonezko sakandarrak txima luze eta bizardunak ziren. Protagonisten rolak Patxi Bisquertek eta Martin Zabala etxarriarrak jokatu zituzten.

# Lore eskaintza egin zioten Arregi Marini

Etxarri Aranatzeko Mikel Arregi Marinen oroigarriaren inguruan jende ugari elkartu zen larunbat eguerdian, hura erail zutela 44 urte bete zirenean. Antropologiaren ikuspegitik Arregiren kasuaren berri ematen duen liburua egin dute

LAKUNTZA

Lakuntzako Pertza eguneko tripotak ordaindu ondoren, Arregi eta lagun batzuk Ziorditik herriara bueltan zihoazen 1979ko azaroaren 11n. Etxarritik pasatzerakoan, Guardia Civilak autoa tirokatu eta gaztea hil egin zuen. Bertsio ofizialaren arabera lakuntzarrek kontrola saltatu zuten. Lekukoek halakorik bazez ere ukatu zuten.

44. urteurrenako omenaldian "nahiz eta urte korapilotsuak bizi", Arregiren memoriari eutsi zaiola nabarmendu zuten. Oroigarriak jasandako erasoak ere gogoan izan zituzten. Egiteko hori bere gain hartu du Mikel Arregi gogoan plataformak, "Lakuntzako eta Sakanako memoria presente eta aktibo mantentzeko". Plataformak gogoratu du Arregiren familiak "txosten zabala" aurkeztu diola Nafarroako Gobernuaren aitortza eta erreparazio batzordeari, eta eskaera aurkeztu duela Bake eta Biziki-



Lore eskaintza egin zitzaion.

detza Zuzendaritza Nagusian. "Ebazpena heldu den urtean iristea espero dugu".

Plataformak azaldu zuenez, "memoria kolektiboaz ari gara, giza eskubideen urraketa, gatazka pairatzen duten pertsoez.

Baina, batez ere, Lakuntza eta Sakana aske eta solidario bat lortzeko ilusioaz ari gara. Sakana aske eta solidario bat, non Arregik eman zigun adibideak betirako iraunen duen".

**Liburua**

Nafarroan izan ziren motibazio politikoko indarkeria kasuak aztertu zituen Nafarroako Unibertsitate Publikoko Lera ikerlariak, antropologo talde bat biltzen zuenak. Haren jardunari segida eman dio Lera Mugarik Gabeko Antropologoak elkarteak, eta lakuntzarren kasua gizarte antropologikotik ikusita ikertu dute. Horren emaitza da *Mikel Arregi Marín. Oroimen erregistroak*, joan den astean argia ikusi zuena. Kepa Fernandez de Larrinoa antropologoa larunbatean Etxarri Aranatzko ekitaldian izan zen eta ikerketan parte hartu zutenei liburuaren ale bana eman zien. Lakuntzan liburuaren aurkezpena egingen dute.



ARBIZUKO UDALA

## Mendinetaren mendea

Maria Mendinueta Arañak 100 urte bete zituen azaroaren 14an, asteartean. Urtebetetze eguna etxekeekin eta lagunekin ospatu zuen eguerdian. Udalak ere bat egin nahi izan zuen ospakizunarekin, eta Francisco Javier Razkin Flores alkatea bisitan joan

zitzaion, Jexux Razkin txistularia lagun zuela. Oroigarri gisa plaka, bonboiak eta lore sorta oparitu zizkion udalak. Iluntzean, berriz, Mendinetaren etxe parera joan zirenak Arbizuko kantariak izan ziren, eta abestuz zoriondu zuten balkoira atera zen Mendinueta.



# Presidente berria Plazaola turismo partzuergoan

Lekunberriko alkatea Arkaitz Goikoetxea Arriolak hartu dio lekukoa Aitor Larraza Carrera irurtzundarrari. Egitekoen artean daude: Nafarroako Gobernuarekin arlo horretan egin litekeen lankidetzak hitzarmena edo partzuergoaren estatutuak berritzea

## IRURTZUN

Plazaola turismo partzuergoko Batzar Nagusiak Lekunberriko alkate Arkaitz Goikoetxea Arriola izendatu zuen erakundeko presidente hilaren 9an. Irurtzungo Udala kide duen erakundean Goikoetxeak Aitor Larraza Carrera irurtzundarrari hartu dio lekukoa. Ardura utzi berritan, Larrazak "partzuergoari atxikitako establezimendu eta negozioen babesa eta konpromisoa eskertu" zituen, "baita partzuergoko kide diren udalena eta erakundeko langileena ere". Azken lau urteko ibilbidearen "balorazio oso positiboa" egin zuen, "etorkizun hurbilarekin oso ilusionatuta nago", gaineratu zuen. Izan ere, "heldu diren urteetan Plazaola-Mendialdeko turismo-estrategia eta Helmugako Jasangarritasun Turistikoko Plana gauzatuak baita". Egitasmo horretan Plazaolaz aparte Ultzamaldeak eta Sakanak parte hartzen du. Egin gabekoei



Arkaitz Goikoetxea Arriola eta Aitor Larraza Carrera. PLAZAOLA

ere erreparatu zien Larrazak, esaterako: bide berdearen egoera juridikoa eta Nafarroako Gobernuarekin arlo horretan egin litekeen lankidetzak hitzarmena edo partzuergoaren estatutuak berritzea.

## Lan ildoak

Goikoetxeak "arduraz eta ilusioz" ekin dio ibilbide berriari. Partzuergoaren "turismo arloan duen bai Nafarroan bai kanpoan duen erreferentzialtasuna" nabarmendu zuen. Legegintzaldirako egi-

tasmoen berri ematerakoan, Larrazak egitekoen artean aipatutakoak izan zituen hizpide. "Nafarroako Gobernuarekin akordioak bilatzeko asmoa berretsi zuen, Plazaolako bide berdea ahalik eta ondoen kudeatu, mantendu eta sustatzeko, gure lurraldeko turismo mugarr nagusietakoa baita. Testuinguru zabalagoan ere ezinbesteko eragilea da, esate baterako, Eurovelo 1ean eta Nafarroako Gobernuko Turismo Zuzendaritzak bulkatzen dituen zikloturismo produktuan eta zikloturismo produktu klubean", azaldu zuen.

Era berean, "Helmugako Jasangarritasun Turistikoko Plana bat etorri, eskualdeko nortasun ezaugarriak eta ondareak dakarten aberastasunetik abiatuta, turismo produktu berriak lantzeko apustua" berretsi zuen, "betiere sektore pribatuaren inplikazioarekin". Ildo horretan, Plazaola-Mendialdearendako komunikazio eta marketin plan bat bulkatzearen garrantzia azpimarratu zuen partzuergoko presidente berriak. Gainera, erakundearen estatutuak berritzeko prozesua despeditzeko asmoa azaldu zuen, eta 2024an partzuergoak bere hogeita hamargarren urteurrena ospatuko duela gogorarazi zuen batzarrera bildu ziren kidei. Bestalde, Lekunberriko turismo bulegoaren hurrengo lizitazioan parte hartzeko asmoa iragarri zuen.

Bulegoak eskaintzen duen zerbitzua hobetzeko lan egingo zuela esan zuen, eta eskualdeko turismo zerbitzu eta baliabideekin harremana estutzeko asmoa adierazi, horrek lagundu egingo baitu gure turismo-eskaintza indartzen, produktu berriak sortzen eta, ondorioz, gure lurraldea helmuga gisa hobeto sustatzen eta komertzializatzen. Gainera, oso baliagarritzat jotzen Plazaolako denda eskualdeko produktuen erreferente gisa bultzatzeko orain arte egin den lana, eta protagonismo eta indar handiagoa emateko interesa azpimarratu zuen.

Azkenik, lurralde osoaren garrantzia nabarmendu zuen, baita sinergiak sortzeko beharra eta beste sektoreekin lan egiteko aukerak ere (lehen sektorea, zerbitzuak, artisautza, eta abar); aldi berean, erakunde eta enpresa berriak partzuergora erakartzearen garrantzia azpimarratu zuen, "indartsuagoa izateko eta eskaintza zabalagoa eta lehiakorragoa izateko".

Gaur egun, partzuergoak zortzi udal ditu kideen artean, Arakil iaz atera zen; negozio pribatuak, berriz, 90 dira.

**"BAI NAFARROAN BAI KANPOAN PARTZUERGOA ERREFERENTZIALA DA TURISMO ARLOAN"**

## Etxarri Aranazko ekopasabideko lanak despeditu dituzte

Duela bi aste utzi zuten Aritzal-koko basoa Obenasa enpresako langileek. NA-2410 eta Sakanako Autobia (A-10) gainean ekoduktua edo ekopasabidea eraiki zuten. Zubi bat, azken finean; ibilgailuek harrapatuta izateko inolako arriskurik gabe fauna alde batetik bestera pasatzeko funtzioa du. Hala Natura 2000 sareko parte diren Aralar eta Urbasa-Andia natur guneak lotuta geldituko dira. A10 autobia- ren 22+000 kilometro puntuan eraiki da, haren gainetik 7,13 metrora dago, 60 metroko luzera eta 45 metroko zabalera du. Lanak 6.079.598,62 euro (BEZ barne) aurrekontua izan du. Europako funtsen bidez finantzatu da lana.

ZURE KOMERTZIOA

# Gabonetako gehigarrian



**PUBLIZITATEA  
JARTZEKO  
AZKEN EGUNA  
ABENDUAK 1**

661 52 32 45 | [publi@guaixe.eus](mailto:publi@guaixe.eus)





# Klinika gobernuarekin, hitzarmena berritzeaz

Osasun Departamentua eta Josefina Arregi klinika psikogeriatrikoko ordezkariak negoziazioak zertan diren aztertzeko bilera egin zuten. Klinikak jakinarazi duenez, saihestu egin du demenzia duten pertsonen % 71,4 ospitaleratzea

## ALTSASU

Josefina Arregi Klinika Fundazioa eta Osasun Departamentuko ordezkariak bilera bat egin zuten lastailaren 30ean. Aztergaien artean bi erakundeek sinatutako hitzarmen berezia izan zen. Hura berritzeko negoziazioa aurreko legegintzaldian hasi ziren. Klinikako ordezkariak jakinarazi dutenez, "aurreko gobernu taldeak sinatzeko borondatea adierazi zuen, eta duela bi urtetik hona xehetasun teknikoak lantzen aritu gara, legealdi honetan inplementatzeko baldintzak izan daitezke".

Bileran, narriadura kognitiboa eta desoreka duten pazienteendako psikogeriatriko kontsulta medikoen zerbitzu berriaren datuak partekatu ziren, baita etxean maneiatu ezin diren eta jokabide nahasmenduak dituztenenak ere. Aldeek zerbitzu berriaren balantze oso positiboa egin zen. Demenzia duten pertsonen ematen zaien arreta eta Lehen Mailako Arretaren bidez Nafarroako osasun publikoa babesteko herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuak hobetzeko bi erakundeek elkarrekin egiten duten ahalegina azpimarratu zuten.

Bilera ere baliatu zuten klinikaren egitasmoen berri emateko:



Josefina Arregi klinikako ordezkariak, ezkerrean, gobernukoekin bilduta. UTZITAKOIA

ospitalearen handitze-proiektuaren egoera; Sakanako etxeko zerbitzua; paziente psikogeriatrikoen jokabide-desorekak saihesteko eta adinduen egoitzek erabil dezaketen Arreta Mediko Osagarriaren proiektu pilotua eta Rural Domus proiektua. Aurreko hiruetarako Osasun eta Gizarte Eskubideen kolaborazioa eskatu zuen. Bileraren ondoren, Joseba Arregi Pabollet klinikako fundazioko presidentea pozik zegoen "Osasun Departamentuaren eskutik arta eta zerbitzuak hobetzeko lanean jarraitzeagatik,

azken 30 urteetan egin duten bezala".

## Demenzia konpentsazio kontsulta zerbitzua

Nafarroako Gobernuak Fundazioarekin demenzia konpentsazio kontsulten zerbitzua hitzartu zuenetik (2023ko ilbeltza), klinikara Lehen Mailako Osasun Arretaren bidez bideratutako pertsonen %71,4 beren etxeetan konpentsatu dira. Klinikako ordezkariak gaitzatu dutenez, "horrela, hasiera batean behintzat, beharrezkoak ez diren ospitale-

ratzeak saihestu dira. Horrek esan nahi du zerbitzu horren bidez artatutako hiru pertsonatik bik ez dutela ospitaleratzerik behar izan, eta, horri esker, benetan ospitaleratzea behar dutenen itxaronaldia minimo historikoetara murriztu da (13 egun)".

Klinikako ordezkariak gaineratu dutenez, "paziente horien ospitaleratzea murrizteak aurrezpen handiak dakartzkio gobernuaren kutzari, eta ospitale lekualdaketetarako ambulantiak gutxiago erabiltzen dira, baita pazienteen senideen ibilgailu pribatuak ere. Gainera, pazienteen zein familien emozio osasuna hobetzen da, ospitaleratzea saihesten baita eta, beraz, antsietate eta estres mailak murrizten baitira".

Altsasuko osasun erakundeak arduradunek gaitzatu dutenez, "hitzartutako zerbitzuak demenzia duten pazienteen itxaron zerrenda nabarmen murriztea lortu du, gutxi gorabehera hiru hilabetetik bi astera". Gaineratu dutenez, "klinikara bideratutako demenzia duten pertsonak zapi eguneko epean artatzen dira, eta nabarmen hobetzen da paziente mota horien arreta goiztiarra, baita horrelako pazienteek beren etxeetan eta egoitzetan familia zaintzaileei sortzen dizkieten egoera dramatikoak ere. Ospitaleratzea beharrezkoa den kasuetan, klinika bideratzen denetik bi astera egiten da", nabarmendu dute klinikako ordezkariak. "Emitza horiek ikuspegi arrakastatsua erakusten dute demenzia duten pazienteei arreta ematean eta baliabideak modu eraginkorragoan erabiltzean, pazienteei eta senideei eta, oro har, osasun-sistemari mesede eginez".

## Aparkalekua egiteko ardura kontzejutik udalera

Unanura joaten diren mendizaleendako izanen da. Nonahi utzitako autoek arazoak sortzen dituzte

## Alfredo Alvaro Igoa UNANU

Beriainera jende asko joaten da Unanuratik, eta autoa nonahi aparkatzen du. Horrek herritarren eta abeltzainen ibilgailuak normal ibiltzeko zailtasunak sortu eta eskola garraioko autobusek buelta ematea zaildu egiten dute. Ez aparkatzeko marra horiak lurrean margotu zituzten, alferrik. Egoerari konponbidea emateko Unanuko Kontzejuak aparkalekua egitea erabaki zuen. Baita Cederna Garalurren bidez 50.000 euroko dirulaguntza lortu ere. Aparkalekua ur biltegitik gora doan pistan egiten dute, langa pasa eta eskuinera. "Gertuago ez dugu herri lurrik, eta lurra erosteko laguntzarik ez dute ematen", azaldu du Santiago Berastegi Lizarragak, kontzejuko presidentea. Azaldu duenez, "50 bat autorendako tokia izanen du. Egin eta gero ordenantza egiten dugu eta ezinen da beste inon aparkatu".

Kontzejuak dirulaguntza eskaera bideratu zuen, "baina udalak baimenak eta bestelakoak maneiatzen dituzenez, aparkalekua eraikitzeke kudeaketa udalaren esku uztea erabaki du kontzejuak". Laguntzarekin pagatzen ez dena kontzejuak ordaindu beharko luke.



**IGOGAILUEN MANTENTZE-LANEN ESKAINTZA ZORROTZENA**

**2.500 bezerok gugan dute konfiantza**

848 87 09 17  
bertoko.eus

**BENETAKO OROTARIKO ZERBITZUA**

**100€-tik/hileko**





## 23. Korrikarako atzerako kontaketa martxan da

Euskararen herrian barna martxoaren 14tik 24ra ibiliko da, Irundik Baionara. Aurtengo leloa 'Harro Herri' da

### SAKANA

Korrika hasteko 118 egun falta dira. AEK-k, hainbat bidelagunez lagunduta, Korrika ren 23. edizioa aurkeztu zuen atzo. Euskararen aldeko errelebo lasterketak *Harro Herri* leloa izanen du. AEK-k

aurkezpen ekitaldian gogorarazi bezala, "aurreko edizioako parte hartze masiboak argi utzi zuen gure hizkuntzaz harro gaudela eta guztion artean komunitate sendoa osatzen dugula. Oztopo guztiak gainditzeko gai den herri

harroa, eta harro Korrikan". Hala aitortu zuen Aitziber Balantzategi Ibargoitiak, AEK-ko Artezkaritza-kontseiluaren lehendakariak eta Korrika batzordeko kideak: "KORRIKAK herri aldarriri alai eta tinkoa izan nahi du, eta, oraindik ere, aurreko Korrikako indar erakustaldia oso iltzatuta dugu begiradan".

Halere, "harrotasun hori konformismoarekin ez nahasteko" azpimarratu zuen Balantzategik. Era berean, erakundeek euskararen normalizazioan duten



2024ko Korrikaren aurkezpena. UTZITAKOIA

Gure dendariak superbotere berriak dituzte

# SUPERBOTEREAK!

ARRETA  
PERTSONALIZATUA  
HERRI ETA  
AUZO BIZIAK  
GILTZARIA  
BEZERO-TXARTELA  
TOPTOPA.SHOP,  
ONLINE EROSTEKO  
TRESNA  
DIGITALAK

**Erosi herrian!  
Erosi auzoan!**

Elidorea Iruti

cederna garaluz

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua

3535

Cámara Comercio Cámara

"ardura garrantzitsua" gogorarazi zuen: "herritarren ahaleginaz batera, hizkuntza politika ausartagoa eta inbertsioak egin behar dituzte". Bien bitartean, orain arte bezala, Korrikak jasoko duen dirua euskararen normalizaziora bideratuko da Euskal Herri osoan.

Jakinarazi zutenez, euskararen aldeko mobilizaziorik handiena Irunen hasiko da, martxoaren 14an; eta, hamar gauren eta hamar gauren buruan, Baionan bukatuko da, Lapurdiko hiriburuan. Han, lekuko barruko mezu sekretua irakurtzeaz aparte, egun osoko jai egitarauaz gozatzeko parada izanen da.

### Omendua

Korrikak urtero pertsona, ekimen edo erakunderen bat omentzen du. "Aurtengo omendua bada herritarren ahalegin horren adierazle bikaina, Ipar Euskal Herriko Azterketak Euskaraz kolektibo gaztea, hain zuzen ere, Frantziako Estatuko hizkuntza legeari aurre eginda baxoa eta brebeta euskaraz egiteko eskubidea aldarrikatzen duena". Ane Elordi Alburquerque Korrika koordinatzaile nagusiak adierazi legez, "gazte horiek, beren ikasketen une oso erabakigarrian, herritar euskaldun gisa dagozkien hizkuntza-eskubideak aldarrikatzeko hautua egin dute, beren notak eta etorkizun akademikoa kaltetuak izango direla jakitun". Korrikak eskainiko dien omendua haien egoera ezagutzera emateko bozgorailu izateko esperantza aipatu du Elordik.

Laster egiteko egunak iritsi bitartean AEK eta Korrika laguntzeko hainbat modu daude. Horietako bat da Korrikako materiala erostea. Horretarako, euskaltegitik pasa edo *korrika.eus* webgunean sartu.



# Genero berdintasuna Boliviako irakasleekin

Halako ikasgaia jaso dute Lakuntzako eskolako, Altsasu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Sakana Lanbide Heziketako makina bat ikaslek. Bakea eta Elkartasuna fundazioaren elkartasun proiektuaren zati izan dira jarduera horiek

## SAKANA

Bartolina Sisa erakundeko, Boliviako Emakume Nekazari Indigenen Konfederazio Nazionalako kide diren Marcia, Salome eta Eduarda Altsasun eta Lakuntzan egon dira. Bakea eta Elkartasuna fundazioaren eskutik etorri ziren haien testigantza emateko. Horretan lagundu zien aurten filmatutako *Aldaketa eraiten* dokumentalak, Boliviako landa eremuko emakumeen ahalduntzea azaltzen duenak. Dokumentalaren ondoren, ikasleekin elkarrizketa izan zuten hiru emakumezko boliviarrak. Altsasu institutuko ikasleak Iortia kultur gunean izan ziren herenegun. Hango saioa despeditu ondoren, Sakana Lanbide Heziketa institutura joan ziren. Lakuntzan, berriz, atzo egon ziren. Ikastetxe bakoitzak fundazioak proposatutako proiektuarekin bat egin du, baina bakoitzak bere dinamika du.

## Aurtengoa

Bakea eta Elkartasuna fundazioa aurten *Wiphala: genero berdintasunaren aldeko sareak ehuntzen* proiektua du esku artean. Genero berdintasunarekin batera Nazio Batuen Erakundearen 2030 Agenda eta Garapen Jasangarri-rako Helbururen batzuk landuko dituzte hainbat ikastetxetako ikasleekin. Horren bidez, fundazioaren asmoa da "egungo egoeraren inguruan ikasleengan kontzientzia piztea".

**Altsasu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Institutuan** dokumentala eta ondorengo solasaldia *Elkartasun Eskolen* proiektuaren barruan kokatzen da jardunaldia. Haren helburu nagusia kulturarteko bizikidetzeta eta elkarbizitza inklusiboa sustatzea da. Beraz, Boliviako emakumezkoen lan saioaz aparte, ikasturtean zehar beste hainbat elkartasun ekintza egingen dituzte egoera zaur-



Boliviatik etorritako hizlariak, Marcia, Salome eta Eduarda. ©FPSNAVARRA

## "EGUNGO EGOERAREN INGURUAN IKASLEENGAN KONTZIENTZIA PIZTU" NAHI DU FUNDAZIOAK

garrian dauden pertsonak laguntzeko. Elkartasun Eskolen proiektua institutuko Filosofia Mintegiak gidatzen du, Bakea eta Elkartasuna Fundazioarekin lankidetzan.

DBHko lau mailetan gai bana landuko dute: 1. mailan kulturartekotasuna, 2. mailan migrazioak, 3. mailan pentsamendu kritikoa eta 4. mailan ekofeminismoa eta mugikortasun jasangarria. Maila guztietan metodologia aktiboak baliatuko dituzte gaiak lantzeko: ikas-kuntza kooperatiboa, talde interaktiboak, kasuen metodoa, gamifikazioa eta beste batzuk. Institututik azaldu dutenez, "ikasturtean zehar sortuko diren materialak, antzezlanak eta bestelakoak apirilean Sakana-ko Elkartasun Azokan ikusgai egonen dira. Ekimen hori Sakana-ko Mankomunitateko Ani-

tzartean kulturartekotasun zerbitzuak, Sakana Harrera Harana eta beste hainbat erakundeek elkarlanean antolatzen dute.

**Lanbide Heziketako** hiru ikasle talde izan ziren Boliviako emakumezkoekin. Sakana LH institutua aspaldi ari da ikasleekin batera genero berdintasuna lantzen, eta fundazioaren eskaintza lan ildo horretan sartu du. Proiektuak segida izan dezake, ikasleak bideo dei baten bidez Boliviakoekin harremanetan jartzeko aukera baitago.

**Lakuntzako eskolan**, hiru emakumezko boliviarraren bisitarren ondoren, proiektua lantzen segituko dute. Horien artean dago Wiphala banderari buruzko lanketa. Aimaratarren ikur etnikoa zazpi kolorez osatutako bandera lau-angeluarra da. Lakuntzarrek ikasiko dute kolore bakoitzak zein esanahi duen eta zein balio islatzen dituen. Ikasleek, jubilatuen elkarteko kideekin batera, Wiphala bat josiko dute. Hura bukatzean, proiektuari akabera emateko, bandera ikusgai jarriko dute, gurasoak presente egonen diren ekitaldi batean.

## Arbizuko eskolatik Zarauzko sari banaketara

Hizkuntza ohiturei buruzko gogoeta sustatu nahi duen 'Arnasetik' bideo sormen lehiaketan finalista da

## ARBIZU

Arnasa Gara ekimenak antolatutako lehiaketan 10 eta 16 urte bitarteko ehunka gaztek parte hartu dute. Haiek irudi, soinu edo ikus-entzunezko formatuetan euskararen arnaguneek duten garrantzia jendarteratu dute, arnaguneek euskararen biziberritzeari eta euskararen herriari egiten dioten ekarpena nabarmentzeko. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako kategorian beraien herriak nolakoak diren azaldu behar zuten, egin daitekeena eta, garrantzitsuena, zergatik diren egokiak euskara maila hobetzeko azaldu behar zuten. 34 sormen lan aurkeztu dira, haietako bost Arbizuko eskolakoak. Eta haietako bat, *Arbizu eta euskara*, finalista da. Haren egileak Oihan Erdozia Alvarenga, Amets Martiarena Martiarena, Maren Mendinueta Perez de Villareal eta Szabolcs Ciprian Loati dira. Laukoteak herriari buruzko kale inkesta egin zuen herrian. Sari banaketa azaroaren 22an, 18:00etan, egingen da Zarautzeko Modelo Aretoan. Lau mailatan hiruna sari banatuko dituzte. Bestalde, lehiaketara aurkeztutako lanak *Arnasagara.eus* webgunean daude ikusgai.

## FESTAK

### LIZARRAGA SAN KLEMENTE FESTAK

#### AZAROAK 17 Ostirala

20:00 Tripoteue: Lizarragako ardi tripota, musikaz eta Lizarraga Kantuz-ekin alaituta, frontoian.

22:00 Herri afaria, Azi-Iturri txokoan.

Ondoren, Javier Andueza Mariatxiaren kontzertua.

#### AZAROAK 18 Larunbata

11:30 Kalejira musika eta Lizarraga Kantuz-ekin, herrian zehar.

13:00 Auzatea.

17:00 Haurrendako puzgarriak, frontoian.

18:00 Haur eta helduendako herri kirolak.

20:30 Gabenara taldearekin dantzaldia.

21:50 Zezensuzkoa.

22:00 Herri afaria, frontoian.

Gauean, Gabenara taldearekin dantzaldia.

#### AZAROAK 19 Igandea

12:00 Amalur taldearekin kalejira.

13:15 Meza nagusia.

14:00 Auzatea. Ondoren, Lizarraga Kantuz.

17:30 Haur eta helduendako Ameli eta Xirrikituen jostunek ipuin kontaketa musikatua, eskoletan.

17:30 Mus txapelketa. Azi-Iturri txokoan.

#### AZAROAK 23 Osteguna

12:30 Meza.

14:00 Jubilatuen bazkaria, Bargazpin.

**kaxeta**  
LIBURUGINDA

Etxeko txikiarendako liburu politenak!

MUNDU  
Lanimo

KOLOREZ  
kolore

www.kaxeta.net  
628 542 519 | 948 460 477

**TX**  
TXARTEL

PERTSONALIZATU ZURE EGUTEGIA URTEKO ARGAZKIEKIN.

OROITZAPENAK OPARITU ETA UNEAK PARTEKATU.

WWW.TXARTEL.NET

## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI  
ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO

LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 /  
kultura@guaixe.eus

## OSTIRALA 17

## ALTSASU Gazte agenda.

Sexgunea sexualitate aholkularitza  
zerbitzua.

17:30etik 20:30era, Intxostiapunta  
gazte gunean.

## OLAZTI Asanblada.

Itaiaren azaroaren 30eko greba  
prestatzeko asanblada irekia.

17:30ean, kultur etxean.

## LAKUNTZA Asanblada.

Itaiaren azaroaren 30eko greba  
prestatzeko asanblada irekia.

18:00etan, kultur etxean.

## ALTSASU Hitzaldia.

Sahararen aurkako zapalketa  
aztertzeko: Sahara herriaren zapalketa  
eta egungo egoera aztergai Altsasun  
bizi diren bi sahararrek. Euskaraz  
eta gaztelaniaz. Altsasuko Gazte  
Asanbladak antolatuta.

18:00etan, gaztetxean.

## ALTSASU Tailerra.

Irakurkide Txakurrek lagundutako  
irakurketa tailerrak, Biak Bat  
elkartearen esku, Biak Bat-ek eta  
Sakanako Mankomunitateak  
antolatuta.

18:30ean, liburutegian.

## ALTSASU Ekitaldia.

Burunda Txeren denboraldi amaiera.  
18:45ean, lortia kultur gunean.

ETXARRI ARANATZ Antzerki  
foroa.

Binomio. Desioa eta indarkeriari buelta  
bat. Porno. Sexu indarkeriaren  
prebentziorako antzerki foro parte  
hartzailea, 12 eta 18 urte bitarteko  
gazteendako. A25aren harira Sakanako  
Mankomunitateko Berdintasun  
zerbitzuaren egitarauaren barruan.  
19:00etan, ikastolako soinketa  
gelan.

## ITURMENDI Asanblada.

Itaiaren azaroaren 30eko greba  
prestatzeko asanblada irekia.

19:00etan, kultur etxean.

## IRURTZUN Batzarra.

Azaroaren 30eko Greba Feminista  
Orokorra prestatzeko Irurtzango eta  
Arakilgo mugimendu feministaren  
asanblada ireki mistoa.

19:30ean, kultur etxean.

## LAKUNTZA Kontzertuak.

Xuar eta Oxido taldeen kontzertuak.

22:00etan, Sorginak tabernan.

## ETXARRI ARANATZ Bakarrizketa.

Iker Plazaola eta Antton Telleriaren  
bakarrizketa saioa.

22:00etan, kultur etxean.

## ALTSASU Gazte agenda.

Gaubela.

22:00etatik aurrera, Intxostiapunta  
gazte gunean.

## OLATZAGUTIA Kontzertuak.

Inguma, Crida Salvatge eta Bulkada  
taldeen kontzertuak, Olaztiko Gazte  
Asanbladak antolatuta.

23:00etan, gaztetxean.

## LARUNBATA 18

## LAKUNTZA Auzolana.

Auzolana: igerilekuetan garbiketa  
lanak, zuhaitzak kimatu eta  
liburutegira lantzariak eraman.

09:00etatik 13:00etara,  
plazan.

## Altsasu Asanblada.

Itaiaren azaroaren 30eko greba  
prestatzeko asanblada irekia.

12:00etan, Gure Etxean.

BAKAIKU Bakarreko Etxea  
elkartearen eguna.

13:00 Poteo Bakaiku kantuzekin.

14:00 Haurrentako bazkaria.

14:30 Herri bazkaria.

15:00 Haurrentako tailerrak.

16:30 Bazkalondoa: bingoa, musa,  
karaokea...

22:00 Mokadua.

23:00 Kontzertuak: Deserrite eta  
Ahuntzak taldeak.

## ITURMENDI Batzarra

## ZINEMA

## ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO  
ARETO NAGUSIAN

*Mi otro Jon* gaurkotasunezko  
filmaren emanaldia  
Igandea 19: 19:30

*Ama-das* film dokumentalaren  
emanaldia eta egileekin  
solosaldua, FilMOTEKA Nafarroan  
eta azaroaren 25aren  
egitarauaren barruan.  
Astelehena 20: 19:30

*Un amor* gaurkotasunezko  
filmaren emanaldia  
Osteguna 23: 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO  
ARETO TXIKIAN

*Gran Hotel Nazareno Txuspo*  
*Poyoren* film laburraren  
emanaldia, Arte Azokaren  
barruan  
Ostirala 17: 19:00

*La contadora de películas*  
zineforum filmaren emanaldia  
Igandea 19: 19:00

*Vidas pasadas* zineforum  
filmaren emanaldia  
Osteguna 23: 19:00

Azaroaren 30eko Greba Feminista  
Orokorra prestatzeko asanblada irekia.  
18:00etan, auzo gelan.

## ALTSASU Gazte agenda.

Billar txapelketa.

18:00etatik aurrera, Intxostiapunta  
gazte gunean.

## OLATZAGUTIA Antzerkia.

*La Saga* antzeztanaren emanaldia:  
Sagastitarrenean alabarekin ez da  
giro. Ane, giza ekintzaile feministak,  
bere lehen abizena aldatzea erabaki  
du eta bere amaren alde egin du.  
Olaztiko Udalak antolatuta, Sakanako  
Mankomunitatearen Berdintasun  
zerbitzuaren azaroaren 25aren  
egitarauaren barruan.

19:00ean, kultur etxean.

## ALTSASU Antzerkia.

Leo Bassiren *Yo, Mussolini* antzeztanaren  
emanaldia. Sarrerak agortuta.

19:30ean, lortia kultur gunean.

## IGANDEA 19

## OLATZAGUTIA Mendi irteera.

Sakanako Mendizaleak taldearen  
irteera: Gorostieta – Urrotz, 12



ALTSASU Antonio Valencia  
natura argazkien erakusketa,  
Altsasuko Mendigoizaleak  
taldeak antolatuta.  
Azaroaren 30 arte. lortia kultur  
guneko aretoen korridorean.

ALTSASU XII. Arte Azoka  
erakusketa, Artebide elkarteak  
antolatuta. Urriaren 20tik  
azaroaren 20ra. Astelehenetik  
ostiralera 17:00etik 20:00etara,  
larunbatetan ikuskizuna hasi baino  
ordu bat lehenago, igandetan  
18:30etik 19:30era. lortia kultur  
gunearen erakusketa aretoan.



IRURTZUN Francisco Navarro  
artistaren margo erakusketa.  
Azaroan. Pikuxar tabernan.

kilometroko ibilbidea. Bazkaria:  
Mugaireko Urgain jatetxean.  
07:00etan, plazan.

## IRURTZUN Dantza.

Udazken jaialdia: Irurtzango Orritz,  
Altsasuko Etorkizuna eta Durangoko  
Kriskitin dantza taldeak. Orritz dantza  
taldeak antolatuta.

11:30 Kalejira.

12:00 Dantza emanaldia, frontoi  
estalian.

Arratsaldean, trikipoteoa.

## ALTSASU Ikuskizuna.

Ene Kantak taldearen *Emozioen festa*  
ikuskizuna. Azken sarrerak.

12:00etan eta 17:00etan, lortia  
kultur gunean.

## ASTELEHENA 20

## ALTSASU Elkarretaratzea.

Sakanako Pentsiodunen  
Mugimenduaren Pentsio duinen  
aldeko kontzentrazioa.

12:00etan, Zumalakarregi plazan.

## ARBIZU Hitzaldia.

Haurrak eta gazteak, pornografiaren  
aurrea nola esku hartu Emaize  
sexologia zentroko Ana Ortiz  
Ballesterosen hitzaldia, euskaraz.  
Haur eta gazteen bidelagunei  
zuzendutako hitzaldia (irakasleak,  
gurasoak, hezitzaileak...). Sakanako  
Mankomunitateko Berdintasun  
zerbitzuaren azaroaren 25aren  
egitarauaren barruan.  
17:30etik 19:30era, udaletxean.

## LAKUNTZA Bilerak.

Herri Antzerkia antolatzeko bilera.  
Herriar guztiei irekita, 12 urtetik  
gorakoendako.  
19:00etan, kultur etxeko tabernan.

## ASTEAZKENA 22

## OLATZAGUTIA Antzerkia.

Pajaros Pintados konpainiaren *Olaiaren*  
*lorategia* antzeztanaren aurrestrialdia.

Er<sup>v</sup>iti aluminio  
PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

Etxe zaharren  
berriztatze eta birgaitzea



Talde artistikoarekin hitz egiteko eta sormen prozesua ezagutzeko aukera izanen da.  
**18:00etan, kultur etxean.**

#### ALTSASU Santa Zezilia.

Erkudengo Ama Abesbatzaren Santa Zezilia musikarien eguneko kalejira: Iortia kultur gunearren plaza, Zumalakarregi plaza, Jubilatuen egoitza, San Juan plaza eta Foru plaza.  
**20:00etan, Iortiatik.**

#### ALTSASU Santa Zezilia.

Txistulari taldearen Santa Zezilia musikarien eguneko kalejira.  
**20:00etan, Foru plazatik.**

## OSTEGUNA 23

#### ARBIZU Aurkezpena.

Leire Iburguren *Petare. Miren Egigurenen* *puskak* liburuarren aurkezpena.  
**18:30ean, liburutegian.**

#### LAKUNTZA Ekitaldia.

Sakana Sariak banaketa ekitaldia.  
**19:00etan, kultur etxean.**

## OSTIRALA 24

#### ARBIZU Gazte eguna.

17:30 Palestinaren egoeraren inguruko hitzaldia, Argi Biden.  
20:30 Pintxopotea.  
21:00 Edu Zardoya.  
22:30 III Futbolin txapelketa.

#### ALTSASU Antzerkia.

*Behi-jasa* antzezlanaren emanaldia: emakume ugariren tragedia isildua; tratu txarren gaia poesiaren eta antzerki absurdoaren bidez lantzen du. Altsasuko Udaleko Berdintasun zerbitzuak azaroaren 25aren egitarauaren barruan antolatuta. 18 urtetik beharagoak doan.  
**19:30ean, Iortia kultur gunean.**

#### ETXARRI ARANATZ Aurkezpena.

Sareren *Konponbiderako Giltzak* dinamikaren aurkezpena.  
**20:30ean, plazan.**

#### ALTSASU Afaria.

Kantaitan afaria 2023. Euskal Herrian Euskarazek antolatuta, Sakanako Mankomunitatearen laguntzarekin. Txartelak: Lezea, Gautxori eta Idergi.  
**21:30ean, Kukurrekka elkartearen.**

## JAIOTZAK

- **Anuk Corchero Luis**, azaroaren 2an Lakuntzan
- **Elaia Camuel Alvarez**, azaroaren 6an Olaztin
- **Badr Hassad Hafyd**, azaroaren 11n Altsasun

## EZKONTZAK

- **Javier Goñi Boria eta Jessica Azkona Aleman**, azaroaren 11n Irurtzunen

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.



**ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75**  
edo [eskela@guaixe.eus](mailto:eskela@guaixe.eus)

► Eskelen tarifak: 55,90 € / 106,5 € / 143,70 €  
prezio hauek BEZa barne dute.

► Bazkideek %10eko deskontua dute.

► Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

## IRAGARKI SAILKATUAK

#### IRAKASKUNTZA

##### KLASEAK EMAN

**LH ikasleendako klase partikularrak:** Aktiboan nagoen irakasle bat naiz eta Lehen Hezkuntzako klase partikularrak ematen ditut. Interesa baduzu deitu edo idatzidazu. 655 448 901.

#### LANA/NEGOZIOAK

##### ALOKAGAI

**Altsasun 'Coworking' bulegoa autonomo eta urruneko langileentzat:** Altsasun 4 edo 5 pertsonen artean partekatzeko bulegoa; Wifi, inprimagailua, berogailua, komuna eta *office*-a ditugu. Aukera paregabea! Informazio gehiago 948 562 604 edo 603 417 554 telefonoetara deituz.

#### OHARRAK

**Elikagai bankuak boluntarioak behar ditu:** Azaroaren 24an eta 25ean hainbat supermerkatuetan jarriko dira eta herri-tarrek emandakoa jasotzeaz arduratuko diren boluntarioak behar dituzte. Interesa baduzu [www.colectas.bancoalimentonavarra.org](http://www.colectas.bancoalimentonavarra.org) webgunean izena eman dezakezu.

**Emakumeen bilgunearen zabalpen zerrenda martxan:** Altsasuko Udaleko Emakumeen Bilguneak Whatsapp aplikazioa zabalpen zerrenda bat sortuko du, Berdintasun Zerbitzuetik antolatzen ditugun ekitaldi eta jardueren berri emateko. Zabalpen zerrendan parte hartu nahi baduzu, bidali iezaguzu Whatsapp mezu bat zure izen-abizenekin eta zerrendan

parte hartu nahi duzula adieraziz telefono honetara: 628 328 593.

**Errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntzak:** Establezimendu komertzialei, ostalaritzakoei eta elkartei zuzendutako dirulaguntzak dira. Diruz lagunduko dira errotuluak, toloak eta ibilgailu komertzialen errotulazioa. Euskara hutsean idatzita dagoen errotulua jartzen duenari %50 ordainduko zaio, gehienez 500 euro emanen zaizkio. Euskaraz eta erdaraz idatzita daudenei %25a, gehienez 250 euro. Eskabideak aurkezteko epea 2023ko urriaren 31n amaitzen da. Informazio gehiago [www.sakana-mank.eus](http://www.sakana-mank.eus) web orrian.

**Aralarko Santutegiko museoa bisita gidatuak egiteko aukera:**

Aralarko Santutegiko museoak ikusi eta bisita egiteko ordutegiak asteartetik larunbatera 11:00etan, 12:00etan, 16:00etan eta 17:00etan. Igandeetan 10:30ean, 11:30ean, 13:30ean, 16:00etan eta 17:00etan. Pertsona bakoitzak 3 euro ordaindu behar ditu.

[iragarki@guaixe.eus](mailto:iragarki@guaixe.eus)

[www.iragarkilaburak.eus](http://www.iragarkilaburak.eus)

#### Nabarmendu zure iragarkia

Modulo txikia:  
14,52 euro  
948 564 275

## ESKELA



**Jose Joaquin Guajardo Olmedillo**

Urak dakarrena urak daroa,  
zuk emandakoa gurekin gelditzen da.

Besarkada bat familiarendako

Ota Elkartea



HEMEN, ZURE ONDOAN

**Izarra, Nafarroako tanatorioa**

Gure lurra, gure jendea, gure sustraiak

#### BEILATOKIAK

ALTSASU  
Santa Cruz, 6

ETXARRI-ARANATZ  
Nagusia, 2

948 05 90 90 • [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)

**IRACHE**  
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70

📧 @Grupolrache

📱 Grupolrache

🌐 [www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)



Txapelketa Madrilen jokatu zen. FEDERAZIOA

## ZIKLO-KROSA Mazkian, Galarza eta Laiglesia, Espainiako Txapelketan

Azaroaren 11n Espainiako Ziklo-kros Txapelketa jokatu zen Alcobendasen. Nafarroako selekzioarekin Quesos-Albeniz-Burunda taldeko Eider Mazkianek eta Ibai Galarzak eta Sakana Group-Aralar taldeko Erik Laiglesia hartu zuten parte.

Kadeteen mailako lasterketan Erik Laiglesia hemeretzigarren sailkatu zen, Ibai Galarza 49., eta emakumezkoen kadeteen mailan Eider Mazkianen hogeitabatgarren. Hurrengo egunean Copa Centro de Alalpardo lasterketan parte hartu zuen Nafarroako selekzioak. Kadeteetan Erik Laiglesia zazpigarren sailkatu zen, eta emakumezkoetan Eider Mazkian hamargarren, biak Top 10ean.

# Kirol Merituaren Urrezko Saria, Ioseba Fernandezi

Nafarroako Gobernuak banatuko dituen 30 zilarrezko dominen artean Lagun Artea Futbol Taldeko Javier Andueza dago. Imanol Erbiti txirrindulariak domina jasoko du, Nafarroako irudia nazioartean zabaltzeagatik eta kirol balioak sustatzeagatik

## Maidar Betelu Ganboa SAKANA

Nafarroako Gobernuak azaroaren 15eko bilkuran Kirol Merituaren Urrezko Domina Ioseba Fernandez Fernandez irrirta-tzaile iturmendiarrari ematea erabaki zuen, "abiadura irrirtaketan izandako ibilbide arrakastatsu eta distiratsurengatik".

## Palmares ikusgarria

Ioseba Fernandez Fernandez Uharte Arakilgo Aralar Mendi klubean hasi zen irrirtaketan trebatzen. Gutzika, lasterketetan parte hartzen hasi zen. Estatuko bere lehen domina 2008an lortu zuen, Lagunak taldean zegoela. Bere palmaresa oso zabala da. Munduko Irrirtaketa Txapelketan urrezko bost domina ditu, bestelako 11 dominekin batera. Horretaz gain, hamazazpi aldiz izan da Europako txapelduna, eta 32 aldiz Espainiako txapelduna, hainbat distantzian. Bestalde, 100 m eta 200 m distantzietako munduko errekorrak



Ioseba Fernandez, urrearekin. ARTXIBOA

ditu. 2021 urtean utzi zuen irrirtaketa lehiaketa, Kolonbiako Mundialetan urrezko domina lortu eta gero. Bere ibilbidean Cobra el Parat, Berrero Ere IT, Amaya Sport-San Antonio, Maestro Skates International Team

eta NL Custom Design World Team taldeetako kidea izan da.

## Zilarrezko domina Anduezari

Bestalde, Nafarroako Gobernuak 30 zilarrezko domina emango ditu, 25 urtetan baino gehiagotan kirola eta jardura fisikoaren arloan egindako lana eskertzeko. Domina jasoko dutenen artean Javier Andueza Artieda lakuntzarra dago, Lagun Artea Futbol Elkarteko juntako kidea. Andueza Lakuntzako futbol taldearen aldeko lan ordainezina egin du urte luzez.

## Imanol Erbiti

Halaber, Nafarroako Gobernuak bost domina banatuko ditu, kirol balioak sustatzeagatik eta kirolaren bidez Nafarroaren irudia nazioartean zabaltzeagatik. Tartean dago aurten erretiroa hartu duen Imanol Erbiti Olo Hiri-berriko txirrindularia.

Dominen sari emate ekitaldia azaroaren 27an izango da.

## FUTBOL PREFERENTEA

### 9. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Valle de Egües - Altsasu 1-1

### SAILKAPENA

#### PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1 Valle de Egües B 19  
6 Altsasu 16

### HURRENGO JARDUNALDIA

#### AZAROAK 18. LARUNBATA

15:30 Altsasu - Aibares (Dantzaleku)

### Altsasuk Aibares hartuko du

Valle de Egües liderraren kontra irabaztear egon zen Altsasu, baina 87. minutuan bana berdindu zuen liderrak. Dantzalekun, etxean, gustura jokatu du Altsasuk.

### Zalduak Elomendiko lider segitzen du

Elomendiko Futbol Txapelketako zortzi jardunaldi jokatura, Arakilgo Zaldua Talleres Goñik lider segitzen du (19 puntu). Larunbatean, 15:30ean Apolo izango du aurkari, Larrabiden.

## EMAKUME PREFERENTEA

### 8. JARDUNALDIKO EMAITZA

Universidad de Navarra - Altsasu 5-1

### SAILKAPENA

#### EMAKUMEEN PREFERENTE MAILA

1 Tudelano 17  
9 Altsasu 1

### HURRENGO JARDUNALDIA

Altsasuk atsedean jardunaldia du

### Altsasuren ezina

Azkeneko porrotei buelta emateko, Altsasuri ongi etorriko zaio atsedena.

## FUTBOL ERREGIONALA

### 7. JARDUNALDIKO EMAITZA

Ardoi B - Etxarri Aranatz 2-1

Lagun Artea - Asdefor 4-1

### SAILKAPENA

#### ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA

1 Mutilbera C 18  
5 Etxarri Aranatz 11  
8 Lagun Artea 10

#### AZAROAK 18. LARUNBATA

15:30 Etxarri A. - San Jorge (San Donato)

18:00 Baztan B - Lagun Artea (Giltxaurdi)

### Etxarri, hirugarrenaren kontra

Etxarri Aranatzek hirugarren den San Jorgeren kontra garaipenaren bidea berreskuratu nahi du.

### Lagun Artearen garaipen ederra

Asdeforren kontrako garaipenak animoa eman dio Lagun Arteri. Elizondon jokoan dauden hiru puntuak ekartzea da erronka.



NAFARROAKO EUSKAL PILOTA FEDERAZIOA

## Gureak, Nafarroako txapeldunak

**PALA** Asteburuan Kluben Arteko Emakumezkoen Nafarroako Txapelketako final handiak jokatu ziren. Etxarri Aranatzko Gure Pilota klubeko palistek ia final guztiak jokatu zituzten. Kimuetan, Baqueriza-Sasiain gailendu ziren bere taldekide Mendiburu-Marroyoren aurrean; haurretan, Garmendia-Campos txapeldunordeak izan ziren; kadeteen

lehen mailan, Larraza-Lazkoz izan ziren txapeldunordeak, eta bigarren mailan Campos-Amado txapeldunordeak. Elite mailako final handian, Irati Igoa etxarriarrak Maidar Ardanazekin osatu zuen bikoa (Añamendi). Nafarroako txapeldunak izan ziren, Oberenako Salanuevari eta Sarasibarri final ikusgarrian 30 eta 21 irabazi eta gero.





Olatz Azazeta Pelaez, Mariren Kobak Trailean nondik jo taldekideekin erabakitzen. MARIREN KOBAK TRAILA

# "Mariren Kobak Trailean sekulako barne indarra nabaritzen nuen"

**OLATZ AZAZETA PELAEZ** KIROLARIA

**MENDI LASTERKETAK** Mendi korrikalari altsasuarrak bere lehen ultra traila egin du, Orozkotik Zegamara Mariren hiru kobazulo batzen zituen trail berezia

**Maidar Betelu Ganboa** ALTSASU

Olatz Azazeta Pelaez 25 urteko gazte altsasuarra kirolari amorratua da. Sakana Igeriketa Taldeko entrenatzailea izateaz gain, mendi korrikalaria, igerilaria, eskiatzailea eta txirrindularia da, kirolari osoa. 2023an mendi lasterketa denboraldi bikaina egiten ari da. Besteak beste, urriaren 29an Betagarri Traila irabazi zuen, eta maiatzaren 7an Extreme Higa de Monrealen Barkarkako Nafarroako Mendi Lasterketen txapeldunordea izan

zen. Azaroaren 11n bere lehen ultra traila egin zuen: mendi lasterketa, orientazioa eta mitologia elkartu zituen I. Mariren Kobak Trail lasterketa.

**Mariren Kobak Traila mendi lasterketa oso berezia da. Orozkotik**

**"AMA ULTRETAN ASKO IBILITAKOA DA; BERAK ESANDAKOA BETI KONTUAN HARTZEN DUT"**

**abiatuta, Zegamara bitartean Mari jainkosaren kobazuloak batu zituen. Ez zen ohiko proba, korrikalariak hasieran mapa batzuk jaso zenuztelako.**

Proban izena ematerakoan, Mariren Kobak Traila euskal mitologiarekin lotuta zegoen lasterketa bat zela zen genekien bakararra. Ez zela soilik lasterketa bat, orientazio raid bat baizik. Bagenekien Mari jainkosaren kobazuloak elkartu behar genituela, baina ez genekien zein zen ibilbidea, non hasi eta bukatuko zen,

ze koba ziren... Mitologiarekin lotuta zegoen ekitaldi handi bat zela, hori zen genekien bakararra. **Beraz, probaren egunean jakin zenuen norantz abiatzen zineten.**

Azaroaren 11n, Orozkotik 7:00etan abiatu baino ordu erdi bat lehenago sei mapa eman zizkiguten. Bertan magenta kolorez markatutako ibilbide bat zegoen, 93 km eta 5.500 metroko desnibela zuena. Lasterketaren helburua Mariren kobazuloetatik pasatzea zen, eta orduan esan zizkiguten hiru kobak zeintzuk ziren: Supelegor (Gorbeiaiko parke naturala), Ezkilar (Urkiolako parke naturala) eta Aketegiko Dama (Aizkorri-Aratzeko parke naturala). Beraiek markatutako ibilbidea har zenezakeen, ala ez. Horrek egin zuen lasterketa berezi. Orozkotik Zegamako amaierako puntura 12 ordu baino lehen iristea zen erronka.

**Nola planteatu zenuen lasterketa?**

Taldetxo bat osatu genuen Uxue Frailek, Jon Artetxek eta hirurok, eta elkarrekin ekin genion erronkari. Hiruren arteko elkarlana azpimarratu nahiko nuke; baikoitzak bere indarrak jartzen zituen beharrezkoa zen momentuan. Lasterketa oso polita izan zen, zentzu askotan; elkarlana horietako bat izan zen.

**Eguraldiarengatik ezin izan zineten Aketegiko Damaren kobara iritsi.**

Aketegiko Damaren kobak sarriera zaila du. Pixka bat jaitsi beharra dago, eta justu amildegia dago azpian. Antolakuntzakoek esan ziguten, euriarengatik, koban beharrean Aketegiko mendi puntan jarri zituztela geuk bildu beharreko harritxoak. Izan ere, korrikalariak kobazulo bakoitzean zeuden harritxo horiek hartu behar genituen, bertatik pasa ginela ziurtatzeko. Posta antzekoak ziren. Aipatzeko da ere koba bakoitzean pertsonaia mitologikoak azaldu zitzaizkigula: Supelegorren Mari eta Basajaun, Ezkilarren Galtzago-riak... Oso polita izan zen.

**Guztira 21 korrikalari hartu zenuen parte, baina lasterketa 12 ordu azpitik egin zuen bakararra Pablo Angulo irabazle bizkaitarra izan zen.**

**"POLIBALENTZIA BILATZEN DUT: MENDIAN, IGERIKETAN, ESKALADAN, ESKIAN... MAILA ONA EMATEA"**

Bai, Pablo Angulo makina hutsa izan zen. 11 ordu eta erdi (11:30:00) behar izan zituen traila osatzeko, eta 83 km egin zituen. Atzetik Castellóko Ruben Marc Cano iritsi zen (12:09:00), 85 km eginda, eta zenbait minutu barru Iker Karrera sartu zen. Segidan gu iritsi ginen, Uxue Fraile eta biak, 24 minutu pasata. Jon Arretxe gure taldekideak 50. kilometroan lasterketa utzi behar izan zuen. Zegamara iristerakoan omenaldi polita egin genion.

**Trailean egindako lanarekin kontentu al zaude?**

Beldur handiarekin nindoan. Nahiz eta asko entrenatu, ultra proba bat ordu asko dira. Ama ultretan ibilitakoa da, eta berak esandakoa beti kontuan hartzen dut. Marirena proba ikusgarria iruditzen zitzaidan, dinamika ederra eta abentura polita. Baina neure buruarekiko zalantzak nituen; beldur hori. Horrenbeste kilometro ez ditut inoiz egin izan, eta ez nekien nire gorputzak nola erantzun zuen. Baina horren pozik nengoen, trailean guztiz murgilduta... Gainera, nire lagunak hornidura puntuetara etorri ziren ni animatzera. Beraiek emandako indarrarekin, eta nirekin ez zeudenak gogoratzen, sekulako barne indarra nabaritzen nuen. Nik uste dut horregatik bukatu nuela horren ongi, pozik nenguelako. Gorputzak erantzun zuen buruak baietz esaten ziolako.

**Ama aipatu duzu. Jone Pelaezek hamaika ultra trail egin izan ditu. Distantzia handietan bere pausoak jarraituko dituzu?**

Ultra trailen munduan sartzearena pixka bat gehiago atzeratzea pentsatzen zuen, mendi lasterketan hasi berria naizelako. Baina uste dut gutxika amaren pausoak jarraitzen ari naizela. Mundu honetan sartu nahi nuen, baina ez nekien noiz; zentzu honetan, amak indar handia ematen dit eta ia konturatu gabe sartzen ari naiz.

**Hemendik aurrera bateko eta beste probak uztartuko dituzu.**

Nire bizitzan beti polibalentzia izan dut helburu. Kirolaria naiz; kirol asko ditut gustuko. Sasoian egon nahi dut, eta polibalentzia hori bilatu; lasterketa motzak eta luzeak egitea, eta gainontzeko kirolean –eskaladan, mendiko eskian, igeriketan, txirrindularitzan...– maila ona ematea. Gorputzak jarraitzen didan bitartean, pozik.





Iratxe Lapuente Perez, irristalari onenen podiumean, eskuinean, saria jasotzen. UTZITAKOIA

# Iratxe Lapuente irristalaria, Behobia-Donostiako podiumean

**ATLETISMOA / IRRISTAKETA / HANDBIKEA** Ziordiarra hirugarren emakumezkoa izan zen irristaketan, eta David Gonzalo seigarren. Aritz Etxeberria eta Erkuden San Martin sakandar azkarrenak izan ziren korrika, eta Iñaki Mugika bederatzigarren handbikean

**Maidar Betelu Ganboa** SAKANA Beste behin, arrakastatsua eta atletismoaren festa ederra izan zen Behobia Donostia (20 km). 30.000 korrikalarik hartu zuten parte lasterketaren 58. edizioan, eta horietatik 1.114 nafarrek lortu zuten proba bukatzea. Aipatzekoa da kirolari sakandarrak ikusgarri aritu zirela. Behobia eta Donostia arteko errepide eta kaleak txiki geratu ziren kirolariak animatzera hurbildu zen jendeketa hartzeko.

## Errekorrak apurtzen

Oinezko lasterketan Chakib Lachgar irundarra gailendu zen eta 2019an lortutako Behobiaren ondotik, bigarren txapela jantzi zuen. Aste bat lehenago Hyderabad (India) 50 kilometroko Mundiala irabaztetik zetorren Lachgar, eta Behobia-Donostian ere ikusgarri aritu zen, erreko-

rra apurtu baitzuen (59:55), historian lehenengoz proba herriko mitikoa ordu bat baino gutxiagoan eginez. “Ez nuen espero. Podiumean egotea agian bai, baina probaren errekorra apurtzea, ez nuen prestatuta, inondik inora. Oso pozik nago, hitzik gabe, Behobia niretako lasterketa berezia delako” aitortu zuen helmugan. Bigarrenari, Zakariya el Boubekraouiri, ia 2 minutu atera zizkion (1:01:31). Aipatzekoa da Aritz Etxeberria Bengoetxea altsasuarra bikain aritu zela: proba osatu zuten 29.664 korrikalarien artean sail-

**ARITZ ETXEBERRIAK BERE MARKA PERTSONALA HOBETU ZUEN ETA TOP 100EAN SARTU ZEN**

kapen orokorrean 93. postuan sailkatu zen, eta bosgarren nafarra izan zen, lehen sakandarra (1:10:04). Meritu handiko lana, zalantzarik gabe.

Emakumezkoetan, Laura Rodriguez kataluniarrak garaipen ederra lortu zuen bere lehendabiziko Behobia-Donostian (1:14:22). Lehia estua izan zuen Sara Villasantekin, 4 segundoko aldearekin erabaki zena. “Aurten Behobiara etortzeko aukera izan dut eta oso pozik nago”. Erkuden San Martin etxarriarra izan zen sakandarren artean korrikalari azkarrena (1:41:58).

**Iratxe Lapuente, zoragarri** Iratxe Lapuente irristalari ziordiarra Donostiako Boulevardeko podiumera igo zen, irristaketako emakumezkoen podiumean hirugarren sailkatu baitzen (48:36), irristaketa lasterketa

absolutuan 21. postuan, Berezi Martinez de Lafuente txapeldunetik (44:42) ia 4 minutura. Gizezkoetan, Patxi Peula gasteiztarra gailendu zen irristaketan (39:12), irristalari onenetako bat dela erakutsiz. David Gonzalo uharte arakildarra gogotsu aritu zen, eta seigarren sailkatu zen (42:05). Guztira 120 irristalarik osatu zuten Behobia-Donostia.

Bestalde, 64 kirolarik parte hartu zuten desgaitasunen bat duten kirolarien mailan. Tartean, handbike modalitatean debuta egin zuen Iñaki Mugikak. Aurten handbikean hasi den altsasuarra bikain aritu zen, bederatzigarren sailkatu baitzen (55:27), Ivan Manuel Montero garaitetik 10 minutura (35:54).

## Sakandarrak, igualtsu

Joan zen urtean guztira 53 kirolari sakandarrek parte hartu zuten Behobia-Donostia lasterketan, eta aurten batek gehiagok, 54k guztira. Horietatik 51k oinezko lasterketan parte hartu zuten, 37 gizek eta 14 emakumeek. Irriestaketan gizon eta emakume sakandar bana lehia-tu ziren, eta handbikean, sakandar bakarra, gizezkoak.

**AURTEN GUZTIRA 54 SAKANDARREK BUKATU ZUTEN BEHOBIA-DONOSTIA, IAZKOAREN ANTZERA**

## Sakandarrak

Sakandarrak 58.  
Donostia-Behobian (20 km)

### Korrika

#### Gizonak:

1. Chakib Lachgar	59:55
93. Aritz Etxeberria	1:10:04
189. Ivan Sobredo	1:12:30
207. Sergio G. Eulate	1:13:04
534. Mikel Berdud	1:17:02
967. Egoitz Carrion	1:20:24
1334. David Mutiloa	1:22:34
1978. Iñaki Azkona	1:25:45
2428. Imanol Guerrero	1:27:49
2940. Jon Mendia	1:29:20
3108. Joseba Galarza	1:29:49
3152. Adrian Jaka	1:29:55
3211. Jose J. Maiza	1:30:04
3726. Ander Galarza	1:31:44
4186. Alejandro Pain	1:33:09
4219. E. Casanovas	1:33:14
5677. Santi Agirre	1:36:41
5874. Gorka Perianez	1:37:07
5952. Emilio Guirado	1:37:17
6316. P. J. Rodriguez	1:38:02
7794. J.A. Fernandez	1:40:44
8091. Pablo Urtasun	1:41:17
8193. Juan Pedro Ariz	1:41:29
8355. Iban Gonzalez	1:41:49
8718. J. Azurmendi	1:42:32
8955. Iñaki Mauleon	1:43:00
10278. Iñigo Orella	1:45:25
11761. Juan Garziandia	1:48:01
11767. Xabier Razkin	1:48:01
11773. Mikel Cordero	1:48:02
12139. Carlos Manero	1:48:42
12154. Javier Goikoetxea	1:48:43
12480. Gorka Arratibel	1:49:17
12938. Iñigo Zapirain	1:50:03
14345. Jose L. Rubio	1:52:34
15917. Raul Erice	1:55:34
18736. Raul Mendoza	2:01:22
18833. Karlos Alonso	2:01:38
19345. Jose A. Augusto	2:03:02

#### Emakumeak:

289. Laura Rodriguez	1:14:22
8446. Erkuden S. Martin	1:41:58
8500. Leire Mujika	1:42:04
11764. Ariane Razkin	1:48:01
12111. Elena Guzman	1:48:39
12493. Nekane Villarreal	1:49:19
12539. Aizea Beraza	1:49:23
13228. Olatz Monreal	1:50:35
14064. Naroa Moreno	1:52:03
14169. Erkuden Andonegi	1:52:15
14347. Ainhoa Baz	1:52:35
15405. Silvia Rodriguez	1:54:30
16976. Sandra Claver	1:57:36
24296. Leticia Goñi	2:36:55

\* Zerrendatan, baina denborarik gabe: Alatz Agirre

### Irristaketa

#### Gizonak:

1. Patxi Peula	39:12
6. David Gonzalo	42:05

#### Emakumeak:

12. Berezi Mart. De Lafuente	44:44
21. Iratxe Lapuente	48:36

### Handbike

#### Gizonak:

1. Ivan Manolo Montero	35:54
9. Iñaki Mujika	55:27



## Protagonistak




UTZITAKOA

### ATLETISMOA

#### ARITZ ETXEBERRIA BENGOETXEA ALTSASU

"Aurtengoa nire hemeretzigarren Behobia da. Duela 20 urte egin nuen lehendabizikoa, 17 urte nituela, eta joan zen urtekoa izan da huts egin dudak bakar, lesioagatik. Baita pandemiakoa ere. Bestela, denak urrenez-urrene egin ditut. Behobia urteroko hitzordua da, data finkoa duena. Denbora bera eginda gerta daiteke beste urte batzuetan lehen 100 postuetan ez sartzea, baina aurten hala tokatu da; 93. sailkatu naiz, eta pozik nago Top 100ean sartzeagatik. Orain arteko nire posturik onena izan da. Bestalde, duela bi urte nire marka onena egin nuen (1:11:44) eta aurten nire marka pertsonala ia 2 minututan gainditu dut (1:10:04). Beraz, oso pozik nago. Beteranoa naiz Behobian, baina oraindik ere bertako giroak hunkitzen nau. Ibilbide osoan egoten naiz hunkituta, horrenbeste jende gu animatzen ikustean. Aurten irteeran Iñaki Mujika handbikean ikustea oso hunkigarria izan da ere, pozgarria. Behobia pasatuta, hurrengoan pentsatzen hasten gara: bi aste barru Donostiako 10 kilometrokoa, abenduan Altsasuko Zubeztiakoa eta San Silvestrea... agenda beteta dugu".



UTZITAKOA

### ATLETISMOA

#### ERKUDEN SAN MARTIN GONZALEZ ETXARRI ARANATZ

"Nire hamargarren Behobia-Donostia izan da aurtengoa, beraz, data boro-bila (kar-kar). Beldur ginen, ez ote zuen bero gehiegirik egingo, baina gus-tura, primeran aritu nintzen. Azaroaren 26an jokatu den Donostiako maratonia prestatzen ari naizenez, denborari dagokionez motelagoa nengoe-la nabaritu nuen. Izan ere, maratoko erritmoa motelagoa da, eta horretan entrenatzen aritu naizenez, sentsazio hori nabaritzen nuen Behobian. Norma-la da, jakina. Egindakoarekin oso gustura nago, eta giro ederra zegoen".



UTZITAKOA

### IRRISTAKETA

#### DAVID GONZALO ETXARRI UHARTE ARAKIL

"Aurtengoa bosgarren edo seigarren edizioa izango da, 2017an egin nuen lehena. Aurten Patxi Peula eta Iñigo Vidondo etorri ziren, oso onak direnak, eta maila handia zegoen. Lehen helburua ez erortzea zen, errepidea bustia zegoelako, bezperan euria egin baitzuen. Irristatzeko oso arrisku-tsu zegoen. Hiruzpalau talde ibiltzen gara irristaketan, lagunak gara baina elkarren artean pike sanoa dugu, eta gustura ibili ginen. Peula gailendu zen. Eraldatuz Euskal Irristaketako Aitor Vacas taldekidearekin saiatu ginen, eta, azkenean, bera laugarren eta ni seigarren izan ginen. Egindakoarekin pozik. Behobia ikusgarria da. Ibilbidea jendez gainezka, jende guztia animatzen... oinezko lasterketa da, eta horregatik antolatzailerei irristalariek parte hartzeko ematen diguten aukera eskertzen diegu. Ildo honetan, Sakanan jende nahikotxo aritzen gara irristaketan, eta leku dezente bat behar dugu patinatzeke; pista ez dakit, baina zir-kuituren bat bai".



UTZITAKOA

### IRRISTAKETA

#### IRATXE LAPUENTE PEREZ ZIORDIA

"Nire lehendabiziko Behobia-Donostia izan zen. Ez nuen espero hirugarren sailkatzea, inondik inora. Uste baino hobeki aritu nintzen. Gainera, lurra bustita zegoen, eta hori patinetan ibiltzeko oso zaila da. Lasterketa erdia baino gehiago bakarrik egin nuen, erori nintzen... eta, beraz, ez nuen hirugarren postua espero. Oso kontentu nago. Lasterketa oso polita iruditu zitzaidan. Sekulako giroa zegoen, une oro jendea animatzen, eta hori esker-tzekoa da".



UTZITAKOA

### HANDBIKE

#### IÑAKI MUJIKA IZAGIRRE

#### ALTSASU

"Nire lehen Behobia-Donostia izan da, eta handbikean egin dut. Aurretik ez nintzen inoiz lasterketan egon. Handbikean serio entrenatzen hiru hilabete inguru daramatzat, eta bederatzigarren sailkatzea sekulako sorpresa izan da niretako. Sailkapena berdin zitzaidan. Nire helburua zen Behobia-Donostia ordu bat baino gutxiagoan bukatzea. 55 minututan egin nuen, eta, beraz, oso pozik nago. Esaten zidaten oso gogorra zela, indarrak gordetzeko. Hala egin nuen, eta lasterketa egingarria iruditzen zait. Behobia-Donostia sekulako esperientzia da. Ibilbide guztian animatzen zaituzte... ikaragarria, ez nuen halakoa izango zenik espero. Aurtengoa askotako lehena izatea espero dut. Kemen taldearekin parte hartzen dugu, eta taldekideen artean ere sekulako giroa dugu. Ostiralean Cuencara noa, Espainiako Txirrindularitza Paralinpikoko selekzioak parte hartzaile berriak hautatzeko egiten duen saio batean parte hartzera".





# Aurreikuspenak, gaindituta

**HERRI KIROLAK / CROSSFITA** Iñaki Vazquez eta Eneko Larrion izan ziren azkarrenak herri kirolak eta crossfita lotu zituen Aizkorri Kirol Apustu ikusgarrian. Arkaitz Jauregik eta Fidel Jimenezek 4 minutu gehiago behar izan zituzten. Burunda bete egin zen

## Maider Betelu Ganboa ALTSASU

Aizkorri Kirol apustuak ikusmina piztu zuela gauza jakina zen. Baina horrenbestera izango zela, antolatzaileek ere ez zuten espero. Izan ere, Burunda pilotalekua bete egin zen, profesionalen mailako pilota jaialdi handietan bezala, edo gehiago. Sakanako herri askotako jendeaz gain, Arabatik eta Gipuzkoatik ikusleak hurbildu ziren ere apustu ikusgarriaz gozatzen. "Jendea etorriko zela, bai. Baina, horrenbeste... ez genuen espero" zioen Aizkorri Kirol Zentroko Gaizka Martinez de Albeniz kirol teknikariak.

## Lana, ikaragarria

Iñaki Vazquezek eta Eneko Larrionek, batetik, eta Arkaitz Jauregik eta Fidel Jimenezek, bestetik, lan itzela zuten aurretik: sei oinbiko erdibitu behar zituzten, sei crossfit ariketa gogorrekin txandakatuz: 1.500 m ski egitea; traktorearen gurpila arrastaka ekarri, sei plaza osatuz; 4 km airbike egin; arraun makinarekin 1.500 m egin; traktorearen gurpila irauliz 10 plaza osatzea; eta 25 kiloko txingekin 30 plaza egin. Ikaragarria. 2.000 euro zituzten jokoan, eta garrantzitsuena: apustua irabazteko ohorea. Eurek bakarrik ez zuten apustu egin; makina bat kuadrilla eta taldeetan denetarik apustuak entzun zitezkeen.

Burunda pilotalekua betetzen zuten zaletuen txaloez lagunduta, bi bikoak lanean hasi ziren, alboan epaile eta laguntzaile bana zituztela. Vazquezek eta Larrionek, Goyo Rodriguezen laguntza zuten; eta Jauregik eta Jimenezek, Floren Nazabalena. "Zeinen lan gogorra izango den hau" zioen epaile lanekin zuten Sergio Gastaminzak.

## Irabazleak, konpentsatuta

Vazquezek eta Larrionek biko konpentsatuena osatu zuten. Erritmoari eutsita, hasieratik konstante izan ziren, eta lan ederra egin zuten, bai makinetan eta baita aizkoran ere. Jauregik, aizkolaria aktibo bakarra denez, lauren artean fisikoki arinena zen Jimenez etxarriarrarekin osatu zuen bikoak, bere nagusitasun hori nolabait orekatzeko. Horiak indartsu hasi ziren, baina gutxika denbora galtzen hasi ziren. Fideli kosta egiten zitzaion, bera zen ahulena, eta Jauregik eutsi eta buelta emango ote zion, hori zen gakoetako bat. Saiatu ziren, baina ezin izan zituzten ihes egindako altsasuarrak harrapatu (51:26). Lanak bukatzeko ia 5 minutu gehiago behar izan zituzten Jauregik eta Fidelek (56:22). Nolanahi ere, bi bikoek ordu bat baino gutxiagoan despeditu zuten lana, aurreikusi baino azkarrago. Vazquezek eta Larrionek irabazi zuten apustua, merezimendu osoz, baina Burunda betetzen zuten ikusleek lau kirolariak gogoz txalotu zituzten, laurakin primerako ikuskizunaz gozatu baitzuten.

## Protagonistendako, "gogorra"

Fidel Jimenezek apustua "oso gogorra" izan zela aitortu zuen. "Hasieratik gogorra izan da. Skian oso indartsu hasi gara, eta ni hori bete naiz. Ondorioz, aizkoran indarririk gabe hasi naiz. Gurpilean indar pila bat xahutu dut; uste nuen ez nuela bukatuko. Gero

**BI BIKOEK ORDU BAT BAINO GUTXIAGOAN DESPEDITU ZUTEN LANA, LAU MINUTU PASAKO ALDEAREKIN**

buelta ematen joan naiz, baina hasiera oso gogorra izan da, eta nabaritu dut".

Arkaitz Jauregik irabazleak zoriondu zituen. "Iñaki eta Eneko hobeak izan dira, eta merezita irabazi dute". Apustu aurretik esan zuen bezala, lanak ordu bat baino gutxiagoan egin ziren. "Frontoiko plazak Aizkorriko Zentrokoak baino pixka bat luzeagoak ziren eta horrek pixkat luzatu du lana, baina nik uste nuen denbora 50-52 minuturen inguruan egongo zela, eta hala izan da. Guri denbora pixka bat joan zaigu. Lehendabiziko egurren Fidelek kortea pixka bat itxi du, eta denbora galdu dugu. Atzetik joateak ere ez du laguntzen. Saiatu gara, eta egindakoarekin, kontentu. Gaur irabaztea zen helburua, baina triste ez gaude, dagoeneko hurrengokoan pentsatzen (kar-kar)".

Eneko Larrion pozik zegoen. "Guk crossfit aparatuetan alde atera nahi genuen, diferentziak markatu; egurretan beldur gehiago genuen. Baina badirudi aizkoran ere ongi ibili garela, guk uste baino hobe. Ikuskizun polita izan da, eta gaur poz-pozik joango gara a faltzera".

Iñaki Vazquez ere lehertuta, baina pozik zegoen. "Nik uste dut gakoak Eneko eta biok izan dugun konstantzia izan dela. Gure erritmoari eustea, eta eurek pixka bat behera egitea itxarotea. Hasieratik aurrean jarri gara, mantendu gara, eta eurek gutxika behera egin dute. Argi dago Arkaitzek egurrean berak bakarrik gu biok mendera gaitzakeela, baina makinetan eta aizkoran esfortzu bera mantentzea zaila da. Kontentu gaude, ikusleek erantzunarekin baita ere. Jendea etorriko zela uste genuen, baina frontoia betetzea, ez".

## Lan gogorra



Vazquez eta Larrion, gurpila irauliz 10 plaza egiteko lanean.

## Traktoreko gurpilari bueltak ematen hamar plaza osatzea

Lan hau, eta traktoreko gurpila arrastaka ekartzen sei plaza osatzeko lana, ikusgarriak izan ziren. Vazquez eta Larrion aurretik ziren aipatu bi lanetan.



Jimenez eta Jauregi, 4 km airbike egiteko lanean.

**4 km airbike egitea** Kanaerdikoa erdibitu berri, eta ia arnasarik hartu gabe airbike bizikletan igo eta pedalkadak ematen hastea lan oso gogorra izan zen. Fidel Jimenez eta Arkaitz Jauregi, bizikletako lanean.



Jauregi eta Vazquez, 25 kiloko txingekin lanean.

**25 kiloko txingekin 30 plaza egitea** Proba honetan alde handia zuten Vazquezek eta Larrionek, baina Jauregik abiadura bizian egin zituen plazak. Hala ere, talde horiak ezin izan zuten talde urdina harrapatu.





Xabier Artieda 'Moby Dick' ikuskizunaren une batean. TXISTI PHOTO

**Erkuden Ruiz Barroso** ETXARRI A.

Balea erraldoiaren istorioak "motibatzen" zion Xabier Artieda antzerkigileari. Etxarrin sortutako eta ekoiztutako lana da *Moby Dick* ikuskizuna, eta azaroaren 26an, igandea, 17:30ean, Etxarri Aranazko kultur etxean emanaldia egingen du, etxean. Ipuin kontalariaren mundutik gertu, baina antzerkiratutako lan bat dela azaldu du antzezleak, "txotxongiloak ere badaude; antzerki kapa desberdinak dituela esan dezakegu".

Herman Melville nobelaren "bertsio bat" egin du Artiedak. "Familia antzerkira hurbildu nahi nuen, eta nire ikuspuntua eman diot". Pertsonaiak osatu ditu eta beraien arteko erlazioak zehaztu ditu: "Batez ere pertsonaia hauek nola marraztu pentsatu nuen, Ahab kapitaina balearen atzetik doan pertsonaiak nola mugitzen dituen gaiak: obsesioa eta abar. Gero, itsasontzian dauden marinelen arteko laguntasuna, ekologismoaren inguruan ere zerbait dauka; itsasoa garbi mantentzeko deia, animaliak, natura...". Gai asko sartu dituela esan du etxarriarrak.

**Istoriaren "bila"**

Artieda istorio baten "bila" zebilen. Bere sorkuntza eta produkzio propioak egiteko erabakia hartu zuen, alde batetik, proiektu askotan sartuta egoten delako, eta bere produkzioak egiteak bere prozesu eta lanera

# Balea handiaren ipuinaren atzetik

Xabier Artieda antzezleak 'Moby Dick' ikuskizuna sortu du, Herman Melvillen klasikoaren "bertsio propioa"; geruza asko dituen ipuin kontaketa antzetzua da etxarriarrarena. Azaroaren 26an Etxarri Aranazko kultur etxean izanen da.

moldatzeko aukera ematen dio. Orain arte berak asmatutako istorioak taularatu ditu eta "komedia aldera eramanda", *Everybody needs...* antzezlanak esaterako. "Honek komedia badu, asko, baina kapa gehiago sartu nahi nizkion ere". Beste mundu batean sartu nahi zen: "Emozionaltasunean, beste gai batzuetan". Horregatik, hainbat istorioa begiratu zituen eta "buelatka" aritu zen; "Istorio bat hartu nahi nuen, hasita zegoen zerbaitetik. Gauza oso onak daude dagoeneko eginak, eta berreskuratu nahi nuen". Azkenean, *Moby Dick*

**"ISTORIOA FAMILIA ANTZERKIRA HURBILDU NAHI NUEN, ETA NIRE IKUSPUNTUA EMAN DIOT"**

izan zen aukeratutako istorioa. "Motibazioa" ematen zion: "Itsasoa, baleak, atzean dagoen istorioa... Joko asko ikusten nion, mami asko atera zitekeen, eta horrek mugitu ninduen".

*Moby Dick* obra klasikoak antzezlan batean bihurtzeko Artiedak nobela irakurri zuen, pelikula bat ikusi zuen, "beste pelikula bat ikusi nuen" eta txotxongiloekin egindako bertsio bat ikusi zuen ere: "Gehienbat ikusi nahi nuen nola konpontzen zuten balearen agerpena, balea oso handia da, ikusgarria, beldurgarria, eta ni bakarrik nengoenek, nola atera zitekeen zalantzak izan nituen". Jasotakoarekin ideiak hartu zituen, "ez dut kontatuko nola agertzen den, bestela spoilerria izango zen".

Artiedak egiten ditu ateratzen lanean agertzen diren pertsonaia

guztiak: "Asko gustatzen zait hori, pila bat motibatzen nau". Lau pertsonaia nagusi dira, "baina txikiagoak daude ere". Txapelak aldatzen ditu pertsonaia bakoitza desberdintzeko, "eta txikiagoak direnak objektuekin egiten ditut". Teknika, ahots aldaketa, gorputza, espazioa, kontrasteak eta abarrak erabiltzen ditu pertsonaia desberdinak egiteko, "lau pertsonaia izanda oso desberdinak izan behar dira. Bat goian badago, beste behean egon behar da". "Testura" desberdinekoak izan behar dira, "prozesu gehiago

**"ITSASOA, BALEAK, ATZEAN DAGOEN ISTORIOA... JOKO ASKO IKUSTEN NION; MAMIA ZEGOEN"**

daude, baina azkar azaltzeagatik, hori da".

Familiarteko ikuskizun bat da, baina "denentzat" dela esan du antzezleak. "Sei urtetik aurrera gomendatzen dut nahiko hitz egiten dudalako. Narrazio puntu bat badago, narratzaile bat bezala".

"Hau ez da esateagatik, baina hemen oso gustura nago beti. Jendea oso emankorra da, oso maitatua sentitu naiz eta beti gogoz etortzen naiz". Etxarriko publikoa antzerkira "eskuzabal-tasunarekin" joaten dela esan du Artiedak, "eta pila bat eskertzen dut". Dagoeneko ez dela hain urduri jartzen komentatu du etxarriarrak, "gehienbat urduri jartzen naiz kontrolatu ezin ditudan gauzak daudenean, esaterako, kalean ikuskizuna egin behar dudala eta haizea boladak daudela eta horrelakoak".

*Moby Dick* ikuskizunarekin Nafarroa osoan ariko da, Gora Gora Fest jaialdiarekin: "Helburua euskara eskura ez daukaten herrietan euskarazko kultura hurbiltzea". Azaroaren 3an Eulaten egon zen, azaroaren 14an Los Arcosen, gaur, azaroak 17, Larraintzarren egongo da eta abenduaren 6an Nabaskozen. Bestetik, azaroaren 26an, igandea, 17:30ean, Etxarrin egingen duen emanaldirako sarrerak udalaren webgunean eros daitezke.

**Musika**

"Musikaren mundu horretan sartu nahi dut. Betidanik gustatu izan zait abestea, pila bat, eta hor daukadan txirrinta bat da". Musika "zerbait berezia" dela esan du Artiedak, eta dagoeneko *Road to Marte* deitutako proiektua martxan jarri du musikari batekin. "Antzerkiaren inguruan gehiago ulertzen dut, baina musikaren inguruan ez daukat konposizio puntu hori. Hor nabil pertsona batekin ea zer egin dezakegun".

Udazkena antzerki denboraldia izaten da, eta urritik gabonak pasa arte "hainbat eta hainbat" gauzatan sartuta dago etxarriarra. Musika antzerki sasoiak bukatzen denerako utzi du, "baina hor dago". *Moby Dick* ez ezik, besteak beste, Gasteizen *Paraiso* antzezlanak mustu du eta Iruñean Galkdieap-sikologo elkartearekin institutu-tuetan indentitatearen inguruko bakarriketak egiten ditu, "eta haiek tailerrak ematen dituzte". "Ez naiz aspertzen".

## Julio Sotok finalerako txartela irabazi zuen Agoitzen

Etzi, azaroak 19, larunbata, Eneko Lazkoz etxarriarra Lesakako finalurrekoan ariko da, faseko azkena

SAKANA

Agoizko kultur etxean jokatu zen 2023ko Nafarroako Bertsolari Txapelketako bigarren finalurrekoa. Saioko ariketa puntuagarri guztiak eginda Julio Sotok eskuratu zuen puntu gehien (543,5), eta Altsasuko finalurrekoan Saioa Alkaizak egin bezala, abenduaren 2ko Iruñeko finalerako sailkapen zuzena lortu du. Sotoren atzetik gelditu ziren Xabat Illarregi Marzol (529,5), Julen Zelaieta Iriarte (458), Ekain Alegre Gil altsasuarra (457,5), Urko Gartzia Aleman (445) eta

Idoia Granizo Uribarrena altsasuarra (409,5). Maiaalen Belarra izan zen gai jartzailea, eta Amaia Telletxea, Cesar Etxeberria, Mikel Beaumont, Nerea Bruño eta Saioa Mitxelena epaile aritu ziren.

Txapelketari finalurreko bakarra gelditzen zaio, etzi, igandea, Lesakan jokatu dena. Pilotalekuan ariko dira kantari Eneko Lazkoz Martinez etxarriarra, Joanes Illarregi Marzol, Josu Sanjurjo Alzuri, Eki Mateorena Zozia, Mikel Lasarte Cia eta Beñat Astiz Isasi. Orduan jakingo da zeintzuk diren zortzi finalistak.



2022ko Udazkeneko jaialdiaren talde argazkia. ARTXIBOA



BAZTERRETIK  
ALTSASUKO  
UDAL LIBURUTEGIA

## Hiru irakurketa proposamen

Altsasuko Liburutegi Publikotik hiru irakurketa proposamen hauekin gatzoz:

### HELDUENDAKO: *Belarriko kilkerra*. Uxue Alberdi (Elkar, 2023)

Ahoz kontatu eta belarriz jasotako testuak dira. Norbaitek apartatu ditu eguneroko bizitzako gertakari sailletik eta gorde ditu memoriaren kaiolatxoan. Min edo ditxa zirelako, gogoratzea merezi zuten. Akorduan hartu zituenak ez zituen beretzat gorde, ordea, eta, aldian-aldian, lagunen konpainia noblean, ahora ekarri izan ditu txitean-pitean.

### GAZTEENDAKO: *Anna kopek eta erreginaren edabea*. Haritz Larrageta (Erein, 2023)

Moskun bizitako abentura ahaztezinaren ondoren, oraingo honetan, Kairora eramango ditu Uxue eta Jokin amaren lanak. Bertan, gaur egungo eta antzinako Egipto nahasiko dituen misio baterako laguntza eskatuko die emakume misterioz bateg. Nor da Nadia? Nor izan zen Tiy erregina? Eta zein da bere edabearren boterea?



### HAURRENDAKO: *Heroines game 1. Tabasa Iori* (Kabe, 2023). *Manga euskaraz*.

Alice du izena. Egun batean, te festa zoro batera ausartu zen. Alice, heroizale talde ezagun bateko burua, baso ezezagun batean aurkitu zuen bere burua. *Txanogorritxo*, *Erpurutxo*, *Eduenezuri*... Maitagarrien ipuinetako heroiak bata bestearen atzetik agertzen dira. Maitagarrien ipuinetatik bereizten dituen da haien formak desitxuratuta daudela. "Zoritxarreko amaiera" izan duten emakume heroiak "Heroinen Joko" batean elkar hiltzen ari direla esaten da, beren patua aldatzeko. Horrela hasten da heroien benetako borroka eder baina krudela maitagarrien ipuin batean.

# Euskal dantzen herria izanen da Irurtzun

Urtero bezala aurten ere Orritz dantza taldeak Udazkeneko jaialdia antolatu du Irurtzunen. Bihar, azaroak 18, larunbata izanen da, eta herriko dantza taldearekin batera Altsasuko Etorkizuna eta Durangoko Kriskitin dantza taldeak ariko dira

### E. C. M. eta E. R. B. IRURTZUN

Ane Martija Orritz dantza taldeko kidea da, eta dagoeneko "urduri" dagoela aitortu du. Izan ere, bihar, azaroak 18, larunbata, Udazkeneko jaialdia antolatu du Irurtzungo dantza taldeak herriari. "Urtero egiten da euskal dantza talde desberdinekin, leku desberdinetako taldeekin harremanak sortzeko eta bakoitzak egiten dituen dantzak partekatzeke, ikusteko eta ezagutzeko". Bi talde gonbidatu dituzte aurten jaialdira: Altsasuko Etorkizuna eta Durangoko Kriskitin. Aurten, beraz, bi talde sakandarrek parte hartuko dute jaialdian, baina Martijak azaldu duenez, "ez du zertan sakandarra izan behar. Noizbait ere Argentinatik etorri dira". Aurreko urtean Baigorriko Arrola taldearekin egindako elkartrukearekin bat egin zuen jaialdiak.

"Zehazki ez dakit noiz hasi zen Udazkeneko jaialdia hau antolatzen, baina badakit 2012. urtean Udaberriko jaialdia antolatu zela

Irurtzunen, garai horretan udaberriari egin zelako". Hortaz, dantza jaialdia ez da berria Irurtzunen; ohitura bat bihurtu da.

### Jaialdia

Eguraldiak laguntzen badu 11:30ean hiru dantza taldeak kalejiran aterako dira herritik, eta 12:00etan jaialdia hasiko da; euria egiten badu zuzenean dantza emanaldia egingen dute, eguerdian. Orritz, Etorkizuna eta Kriskitin dantza taldeek euskal dantza emanaldia egingen dute, bakoitzak prestatzen dituen dantzekin. "Gainera, bakoitzak bere musikariak ere ekartzen ditu". Jaialdia bukatzerakoan hiru taldeak bazkarian elkartuko dira eta arratsaldean Irurtzungo taber-

**"DANTZA TALDE DESBERDINEKIN HARREMANAK SORTZEKO EGITEN DA" ANE MARTIJA**

netatik trikipoteo "motz bat" antolatu dute, "gure artean harremantzeko". Dantza taldetako "gatzetxoek" parte hartuko dute jaialdian, "gure taldean, Orritzen, 17 urtetik gorakoak gara denak, eta datozenak ere antzekoak dira".

Orritz dantza taldea "osasuntsu" dagoela esan du taldeko kideak. "Printzipioz bai. Momentu honetan hogeit hamar pertsona baino gehiago gaude taldean; egon dira denboraldiak gehiago izan garenak eta beste batzuk gutxiago izan garenak ere". Astero egun batez entseatzera elkartzen dira, eta "txikitxoak" ere dantza ikasten ari direla esan du. "Espero dezagun haiek ere aurrera egitea eta etorkizunean taldean sartzea". Etorkizuna badago Orritzen.

Biharko dena prest dute, eta urtero egiten badute ere, antolatzailea izateak badu bere gauza: "Azken finean, taldeak bilatzea kostatzen da, egun osoa antolatu behar duzu... Baina badakigu egun polita izango dela, eta listo".



**Erkuden Ruiz Barroso** OLATZAGUTIA Pajaros Pintados, Victoria Alvarez Musetti antzerkigile olaztiararen antzerki konpainia da, eta azaroaren 20tik 23ra bere lan berriaren erresidentzia egingen du Olaztiko kultur etxean: *Olaia-aren lorategia* euskaraz eta *El jardín de Olivia* gaztelaniaz. Antzezlanari azken ukituak emanen dizkiote Olaztin, eta 22an, asteazkenean, 18:00etan, erakustaldia egingen dute publikoaren aurrean, "emanaldia ikusleekin probatze-ko". Sormenezko literatura eta idazketa gradua ikasi zuen Alvarezek, eta antzerkiarekin maitemindu zen "atzean dagoena" ezagutu zuenean: "Antzerkian istorioei bizitza ematen diezu, pertsonekin eta elementuekin materializatzen da, eta horregatik gustatzen zait". Jendearekin elkarbanatzen den lan bat da ere antzerkia.

#### Zer da Pajaros Pintados?

Antzerki sorkuntza konpainia bat da; antzezlanak sortu eta ekoiztu ez ezik, kolaborazioak eta mediazioak egiten ditugu ere. Proiektu eta ikuskizunetan lan egiten dugu, formakuntzak ere egiten ditugu. Antzerkia jendea-ri gerturatu nahi diogu, ikuslea antzerkian inplikatzeko; sormen prozesuak ezagutzeko, antzerkiaren barrua ezagutzeko.

#### Nola eta zergatik sortu zenuen?

Teatro del Cuervo Asturiasko konpainian lan egin izan dut, eta haien filosofia hori da: publikoari antzerkia gerturatzea modu desberdin batean, non parte sentitzen diren eta ikuskizunetan prozesua ikusten den. Jantzi edo eszenografia aldaketa bat bada, ikustea nola egiten den; ez teloa ixtea eta dena aldatuta dagoela ikustea. Aldaketa hori ikusten duzu, eta, hala ere, istorioaren barruan sartuta zaude. Magikoena da. Haien hori lantzen dute eta niri asko interesatzen zitzaidan. Rincones y recovecos jaialdian lan egin dut ere. Antzerkia espazio ez ohikoetan egitean datza; antzerkiaren magia eta nola funtzionatzen duen ikusten da. Horiek guztiak hartu ditudan influentziak dira. Antzerkia interesatzen hasi zitzaidan barrutik nola funtzionatzen zuen ikusi nuenean. Jendeak hori ezagutzeko nahi nuela pentsatu nuen; antzerkia gerturatzea.

#### Zer lan egin dituzu?

Lehenengo lana *Shere Khan* familiarterako antzezlan izan zen, Teatro del Cuervorekin eta

# "Denok gure oroitzapenak laboratzen ditugu"

**VICTORIA A. MUSETTI** ANTZERKIGILEA

'Olaia-aren Lorategia' gabezien eta oroimenen inguruko Pajaros Pintados bere konpainiaren lan berriaren aurrestreinaldia egingen du Olaztiko kultur etxean



Victoria A. Musetti antzerkigilea Olaztiko kultur etxean.

Errioxako Realidad Traviesarekin koprodukzioan. Orain ari gara *Olaia-aren Lorategia* edo *El jardín de Olivia* ikuskizun berriarekin. Nafarroako Gobernuak diruz lagundutako proiektu bat da, eta azaroaren 24an

**"ANTZERKIA INTERESATZEN HASI ZITZAIKAN BARRUKO FUNTZIONAMENDUA IKUSI NUENEAN"**

mustuko dugu Nafarroako Antzerki Eskolan.

#### Aurretik Olatzagutian erresidentzia egingen duzue.

Eszenatokira eraman aurretiko lan bat da, bai. Jantziak eta elementu guztiak iritsiko dira, eta helburua elementu eszeniko guzti horiek jartzea da. Arlo teknikoa eta argiteria ere probatuko ditugu, eta publikoaren aurrean egingen dugu ere. Aktoreek dagoeneko behar dute beste pertsonaiekin kontaktatzea. Olaztikoa naiz eta gero Altsasura joan nintzen. Niretako oso gertuko espazioa da kutur etxea. Txikia da, baina nahiko jende etor daiteke. Oso eroso da. Gainera, kultur etxetik eta udaletik beti oso prest daude horrelako gauzak ekartzeko eta hemen egun batzuk pasa ditzakegu. Zoragarria da.

#### Prozesuan publikoari erakustea garrantzitsua da?

Asko ikasten dugu. Prozesuaren barruan zaudenean dena oso argi ikusten duzu, eta publikoaren paperean jartzen saiatzen gara, baina badira gauzak ez direnak ikusten.

#### Zer kontaktatu lanak?

Ausentzien inguruan hitz egiten du, modu delikatu eta gozoan; oroimen zorioetsuen bidez. Olaia edo Olivia lorategi batera iristen dira eta neguak utzitako jasotzen hasten dira. Objektuen bidez, landareak eta lorategiko objektuak, pertsonaia desberdinekin elkar- tzen dira eta oroitzen hasten dira.

Oroimenen lorategia da. Denok gure oroimenak laboratzen ditugu eta bertara iristea gustatuko litzazuke. Bizitako berreskuratzeko. Hasierako galdera da: non gelditzen da bizitzen duguna? Non gelditzen da sentitzen dugun guz- tia? Maite dugun jendea joaten denean zer gertatzen da oroitzapen horiekin? Nonbaitera joaten dira, gure zati bat ere badira.

#### Gaia zaila, ezta?

Konturatu gara gure gizartean oso gutxi hitz egiten den gai bat dela. Orokorrean oso gaitetik pasatzen da. Ez genuen tristeziatik eraman nahi, oroitzapen politak dira, gure bizitzaren parte diren eta dagoeneko gurekin ez dauden pertsonak. Olaia urta- roetatik pasatzen da, bizitzaren etapa desberdinak erakusten dituztenak: udaberria, haurtzarora; uda, gaztarora; udazkena, heldu- tasuna eta negua, zahartzarora. Etapa bakoitzean gabezia eta dolua modu desberdinetan ulertzen du. Ikuskizun emozionala da.

#### Nolako izan da prozesua?

Nik aurretik testua idatzita neukan ideia orokor batekin. Oroimenen lorategiaren iruditegi hori banuen, baina Maia Ansa eta Manuela Orbegozo aktoreekin eta Sergio Gayol zuzendariarekin dena forma hartzen joan da. Kode desberdinekin jolasten hasi ginen, istorioa kontaktzeko egokiena aurkitu genuen arte. Horren arabera testua moldatzen joan naiz. Gero garbitzen joan gara eta forma emanez. Oinarria nik egin nuen, baina gero guztiok gure ekarpena egin dugu.

#### Nolako da dramaturgoaren eta zuzendariaren arteko harremana? Eztabaidak izaten dira?

Ez da oso ohikoa dramaturgoak egotea. Pertsona berdina izan ohi da. Kasu honetan elkarrizketa osagarri garen talde bat elkartu gara. Sergiok esperientzia handia du, zuzendaria eta aktorea da, eta idatzi du ere, berak esaten duen bezala, beharrez. Duela urte batzuk elkartu ginen, eta osatzen gara; berak ikuspegi eszenikoa ematen dit. Zuzendari laguntzaile bezala lan egiten dut ere, beraz, presente nago. Eztabaidak ez ditugu, baina agian egon daiteke esaldi bat niri asko gustatzen zaidana, baina akzioekin dagoeneko erakusten dena, eta niri gustatzen zaidalako ez du esan nahi funtzionatzen duenik. Ikusten duzunean eta ahaztu egiten zaizunean esan nahi du egia zela, esaldirik gabe funtzionatzen duela.



Azi Iturri elkarteko kideak Euskaraldia-rako egindako argazki batean. ARTXIBOA

# "Elkartea elkartzeko toki oso garrantzitsua da"

San Klemente festak ospatuko dituzte asteburuan eta hilaren 23an Lizarragan, eta festetarako Azi Iturri elkartea alokatzen dute. Baina egunerokotasunean topalekua da elkartea, bazkideek esan dutenez. Laster mende erdia beteko du

**Erkuden Ruiz Barroso** LIZARRAGA

## 1 Noiz sortu zen Azi Iturri elkartea?

1974. urtean Asociacion Catolica de Padres de Familia y Juventud bezala sortu zen. Seguruenik apaizak lagunduta sortuko zuten. Hasi zenean liburutegia zegoen, haurrendako jostailuen txokoa eta gurasoak txandakatzen ziren haurrak jolastera joateko. Txangoak eta bidaiak antolatzen zituzten ere, esaterako, Oportora joan ziren.

Kartetara jolasten aritzen ziren gizon eta emakumeak. Urtehoriek oso politak izan ziren; lan asko egin zuten. Lehenengo estatutuak 1979an egin omen zituzten, baina aurretik funtzionatu zuen ere. Elizaren eta parkearen ondoan dago, eta Azi Iturri Karrika deitzen da.

## 2 Nola kudeatzen da?

Zuzendaritza batzorde bat osatzen da, urtero berritzen dena. Aurten Klaritari egokitu zaio

lana. Bigarren aldiz tokatu zaio. 65 urtetik aurrera ez zara batzordekoa izan behar. Batzordeak gutxi gorabehera dena eramaten du. Hiru sotolari daude eta kontuak eramaten dituen idazkari bat. Zerbait gertatzen denean batzordea elkartzen da. Dirua bazkideen kuotetatik lortzen da, beste elkarteetan bezala.

## 3 Eta festetan alokatzen da, ezta?

Hori da, bai. San Adrian eta San Klementetan alokatzen da,

eta hortik ere dirua sartzen da. Arleze egunean ere taberna bezala jartzen da, kanpotik etorritakoak sar daitezke.

## 4 Zenbat bazkide ditu?

165 bazkide. Herritar gehienak. Kanpoan bizi direnak ere elkarteko kide dira.

## 5 Zer behar da kide izateko?

18 urte baino gehiago izan behar dituzu eta sarrera bat ordaindu behar da; beste elkarteetan bezala. Bazkide berria beste bazkide batekin sartu behar da.

## 6 Eta bazkide ez direnak sar daitezke?

Bai, baina bazkide batekin eta barran ezin dira sartu. Baina elkarteetan bai.

## 7 Zer egiten duzue elkarteetan?

Elkarteetan emakumearen eguna antolatzen da, Euskaraldia, nerabezaroa, euskara, ema-

kumearen eta abarren hitzaldiak eman dira, bertso saioak egin izan dira... Pandemiarekin pixka bat gelditu da, baina pixkanaka gauzak antolatzen ari dira berriz.

## 8 Ospakizunak antolatzen dituzue?

Inauteriak ospatzen ditugu eta Olentzero elkartetik ateratzen da, herritik abesten joaten gara eta bertan bukatzen da kalejira. Errege bezperan Hiru Erregeak hiru herrietatik pasatzen dira eta, ondoren, elkarteetan afaria egiten dugu.

## 9 Egunerokotasunean jendea egoten da?

Herriko bizitza da. Asteburuetan egoten da jendea gehienbat: bazkariak, afariak, telebista ikustera joaten den jendea, pilota eta futbol partidak ikustera, abestera ere elkartzen dira, kartetara jolastera, lagunekin zerbait hartzera eta hitz egitera... Ostegunero kuadrilla bat joaten da afaltzera. San Martin festak pasa berri dira eta jende asko egoten da. Toki oso garrantzitsua bat da. Orain udalak antolatutako ikastaro bat egiten ari dira bertan.

## 10 Beharrezkoa da, beraz.

Bai. Orain goian taberna dago, baina lehen ezer ez zegoen jendea elkartzera elkartera joaten zen.

## 11 Izena nondik dator?

Oso istorio polita da. Hor dagoen eraikina apaizaren etxea da, eta goian iturburu edo iturri bat zegoen. Izena hortik dator; elkartea lehen iturburu bat zen. Ura hartzera joaten omen ziren bertara.

## EGUTEGI PERTSONALIZATUAK

**Diseinu, eredu eta formatu ezberdinak. Aukeratu zurea!**

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

*Zure argazkia hemen!*

DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA

f d

619 821 436  
[info@gkomunikazioa.eus](mailto:info@gkomunikazioa.eus)  
[www.gkomunikazioa.eus](http://www.gkomunikazioa.eus)  
 Foru plaza, 23-1. Altsasu